

euskara&historia
david peterson

QEU

2,40 €

2007ko abendua

179

artea
kale kantoiko museoa
bidaia
eh-laponia bizikletaz

gaiak
landa bititza
elizar terapia zentroa
durangoko azoka



MIKEL URDANGARIN



PARRAL

TABERNA

XII. URTEURRENA



abendua

3an (20:30)

Umore gaua:
BOTI
(100 txiste
orduko)

4an (20:30)

KARROCERIAS
BETOÑO (punk-
rock)

5ean (20:00)
(urteurren festa)

GREEN VALLEY
(reggae, ska...)
+
afari-merienda
+
dj CARLOS

PARRAL taberna-Jantoki begetarianoa
San Frantzisko kantoia 4
ALDE ZAHARRA. Vitoria-Gasteiz. ARABA

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

PARRAL

TABERNA



7

MIKEL URDANGARIN



13

DAVID PETERSON



23

AGURAINGO ZERAMIKA MUSEOA


- 4 zeregin
abenduko agenda
- 7 geupertsonaia
mikel urdangarin, anek idatzi dit zutaz
- 12 kaletik / beste
gasteiz, hiri modernoa? / ez adiorik, zorro!
- 13 geugaia: euskara&historia
david peterson, tiron eta oja ibarretako euskal aztarnak
- 18 euskaltasunean. gasteiz
yolanda barbero
- 20 gaztezulo aldizkaria
bularretakoak, 100 urte
- 23 arte txokoa
aguraingo kale kantoiko museoa
- 26 batbitan
elizar terapia zentroa
- 28 bathirutan
landa bizitza
- 31 bidaia
mendiguren (araba)-nordkapp bizikletaz
[eh-laponia]
- 34 arababixotzian / historiazutabea
mundina / erlantz urtasun
- 36 batbitan
durangoko azoka
- 38 umorea
iñigo sarasola

GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariako batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune velez de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak:

josune velez de mendizabal, edurne begiristain, ainhoa arriaga eta naroa cuesta | azala: edorta sanz | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: iñigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: jmundina, kike fdz. de pinedo, erlantz urtasun, aitor fdz. de ortega eta gaztezulo. | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzailea: edurne begiristain | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | Ig: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



zeregineuskaraz [abendua]

MUNDUA LO DAGOEN BITARTEAN IKUSKIZUNA

ABENDUAK 3-EUSKARAREN
EGUNA

PRINCIPAL ANTZOKIAN, 20:30
DOAN

SARRERAK: ARABA KULTURALA
(posta kalea 17, behea)

www.geugasteiz.com /
www.vitoria-gasteiz.org



GEU ELKARTEA

GEUREKIN MENDIRA
abendua 16, igandea

OLVEDO (930 m.)
[datu+: ARKAMU MENDIKATEA,
Lazkomonte haranaren hegoaldea]
*goizeko irteera
irteera: lovaina plazatik / kotxez
ordua: 9:00
arduradunak: joseba (945200973) /
bego (945266812)



KULTUR ERROTA
abendua 18, asteartea

KONTZERTUA (POP): JOSEBA
IRAZOKI, 'IRRI ETA SOLAS'
joseba irazoki musikari beratarrak
pop estiloko abestiez egindako
proposamena dakarkigu parralera.
era akustikoan emango du
ikuskitzuna, kanta intimo eta lasaiak
eskainiko dizkigularik. horretarako,
mikel artieda baxujolea izango du
laguntzaile.
parral tabernan, 20:30

IRAKURLE KLUBA
abendua 20, ostegunarekin

BEÑAT SARASOLA, KAXA HUTS
BAT, SUSA 2007


beñat sarasola donostiarraren 'kaxa
huts bat' poema liburua izango da
gasteizko literatur klubak bere gain
hartuko duen hurrengo mintzagaia.
'kaxa huts bat' ironiaz beteriko
poema liburu dibertigarria da.
eztabaidagai izango den beñat
sarasolak kaleratu lehen liburu honek
kritika ezin hobekak ditu literaturaren
mundutik.

urtarrilak 31, ostegunarekin
mark haddon, txakurrari gauean
gertatutako istripu bitxia, igela 2006
hikaateneoan, pintore kalea 13,
20:00
kontaktua: iban.zaldua@ehu.es
www.geugasteiz.com



DURANGOKO AZOKA.
42. EDIZIOA

abendua 5etik 9ra
durangoko landako erakustazoka
10:30-20:00
info+ & egitaraua:
www.gerediaga.com /
www.durangokoazoka.com



GAUEKOAK
GAUEKO BERTSOAK SAIOA
abendua 14

Aldabe g.e.-an, 22:00
info+: 945204009 (kolore biziak
elkartea)
www.gauekoak.com

GORA TABERNA
(gasteizko alde zaharra, 945121452)
KONTZERTUAK EUSKARAZ

PARRAL TABERNA
(gasteizko alde zaharra)

abendua 3tik 5era
12. URTEURRENA

abendua 11
SISTER SIMONE AND THE HOLY
BALLS
(blues-rock iparraldetik)
HALA BEDI irratiko 3KORTXEA
saioak antolatua
www.myspace.com/sistersimoneandthehollyballs

abendua 18
JOSEBA IRAZOKI
'irri eta solas' (pop beratik)
KULTUR ERROTA-GEU elkarteak
antolatua
www.hirustarecords.com
www.myspace.com/josebairazoki
20:30

BISITALDI GIDATUAK

ANDRA MARI KATEDRALA
945255135
www.catedralvitoria.com

GASTEIZKO ERDI AROKO HARRERIA
erreserbak: andramari katedralaren
bisitarien zentroan / 945 255 135
4 bisita eguneko (iraupena:
ordubete): 11:15, 12:45; 17:15, 18:45
2 euro pertsonako



MONTEHERMOSO KULTURUNEA.
ERAKUSKETAK

asteazkenero 19:30ean (ez da
beharrezkoa deitzea)
taldeak: astearte & ostiraletan
(aurretik erreserba eginez:
945161830)
PASAHITZAK.

urtarrilaren 20ra arte
DESIOAREN AURREZKIA.
urtarrilaren 6ra arte
EZ DA EMAKUMERIK
EMAGALDURAKO JAI DENIK.
urtarrilaren 6ra arte
MUGAGABEKO NAHIA.
urtarrilaren 6ra arte
WORLD PRESS PHOTO 07
(PERISCOPIO).
urtarrilaren 6ra arte
www.montehermoso.net

ARTIUM
ERAKUSKETEN BISITALDI
GIDATUAK
asteazken, larunbat eta igandero,
11:30ean
doan. plaza mugatuak

ARTIUM: TALDEENTZAKO
BISITALDI GIDATUAK
derrigorrezkoa alde aurretik
erreserba egitea (73 euro)

ARTIUM: FAMILIENTZAKO BISITA
GIDATUAK
urriaren 20tik aurrera
larunbat & igandek: 12:30-13:15
5-11 urte bitarteko umeentzat,
helduek lagunduta
doan. plaza mugatuak
info + erreserbak: 945209010
www.artium.org

IRUÑA-VELEIA
945403044 / 652720947
www.veleia.com

GATZ HARANA. GESALTA AÑANA
asteleheneetik igandera (jaiegunak
barne), 11:00 / 12:00 / 13:00 / 16:00 /
17:00 / 18:00
bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino
gehiagoko taldeak
helduak: 3 euro / lagundutako
haurrak: dohainik / taldeak: euro 1
945351111
www.vallesalado.net

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) lagundutako egitasmoa

mundua lo dagoen bitartean

abenduak 3.
euskararen eguna
principal antzokian
20:30
doan

(sarrerak azaroaren 19tik
aurrera araba kulturalean)

gidoia&zuzendaritza:
patxi zubizarreta

aktoreak:
iban garate, mikel losada,
maria uriarte, felipe barandiaran

parte-hartze berezia:
nerea garmendia, agurne anasagasti, ane Muñoz

pianoan:
joserra senperena

Artium

ARTIUM & UMEAK

ARTIUM TXIKIA
abenduak 2, 9, 16, 23, 30
(igandeak)

3-5 urte bitarteko haurrentzat,
helduek lagunduta
12:15-13:30

GOIZEAN ARTIUMEN
abenduak 2, 9, 16, 23, 30
(igandeak)

5-11 urte bitarteko haurrentzat,
helduek lagunduta
12:00-13:30

HAURENTZAKO ERAKUSKETAK
urtarrilaren 6ra arte
GUZTIOK, ABERE

EGUBERRIETAKO LANTEGIAK:
FLASH

abenduak 26, 27, 28
argazkiak, inprimaketa,
erreproduzio teknikak
6-12 urte bitarteko haurrentzat
sarrera doan. toki mugatua
11:00-13:00 / 17:30-19:30

945209010
www.artium.org



PERISCOPIO 07

abenduaren 9ra arte
www.periscopiovitoria.com

TXIKIART
MONTEHERMOSO KULTURUNEA
larunbatero, 18:00etan

4-9 urte bitarteko umeentzako
tailerrak
945161830
www.montehermoso.net

KREA
EXPRESSION CONTEMPORANEA

KREA
KOMIKIA & POESIA PROGRAMAK
KREAREN komikiaren & poesia arloko
azken sormen-joerak sakontzeko
programak

epea: abenduak 15
-25. komiki eta 3. poesiako eskola-
lehiaketak
-araban edo caja vital kutxaren
eragin-esparruan bizi diren 9 eta 17
urte bitarteko ikasleentzat
-lan irabazleak www.kreared.com
web-orrian eta bilduma-lanetan
argitaratuko dira
-lehiaketan oinarriak: webean /
kreaken behin-behineko helbidean
(posta kalea 17) / 945 150 147
www.kreared.com

PERU ABARKA
NARRAZIO LABURREN
III. LEHIAKETA

abenduaren 28ra arte
18 urtetik aurrera
markina-xemeingo udala (euskara
zerbitzua)

LIBURUTEGI
BIZIDUNAK

IKASTARO KULTURALA EUSKARAZ
'LITERATURA IRAKURTZEKO
BESTE MODU BAT:
EMAKUMEA LITERATURAREN
ARIMA'

GEMA LASARTEren eskutik
hegoalde g.e.-an, urtarrilak 9-
martxoak 12 (10 saio,
asteazkenetan, 19:00-21:00)
izena emateko epea zabaldurik g.e.
guztietan
www.vitoria-gasteiz.org/bibliotecas



BERTXOKO BERTSO
SARIKETA

FINALA
abenduak 1
errexala elkartean (gasteiz), 20:00
<http://bertxoko.halabedi.org/>

AMODIOZKO GUTUNEN
XVI. LEHIAKETA

epea: urtarrilak 6
15 urtetik gorakoentzat
antolatza: jardun euskara elkarte
943763661/605712469
amodiozkogutunak@euskalerrria.org
www.jardun.net

SMS BIDEZKO VI.
MAITASUN MEZUEN
LEHIAKETA

urtarrilaren 1etik 15era
605712469
amodiozkogutunak@euskalerrria.org
www.jardun.net



OLENTZERO
KALEJIRAK
abenduak 24
www.vitoria-gasteiz.org

G.E.A., 'GASTEIZKO
EUSKARAREN
AGENDA' DIGITALA
jaso nahi?

bidalguzu zure e-posta
geu@geugasteiz.com helbidera eta
hilerro jasoko duzu.
gasteizko euskarazko ekintzen
bilduma da G.E.A.
ezinbestekoa Gasteizen euskaraz
mugitzeko!

FURGONETA SALGAIVV
CALIFORNIA COACH T4



- 2.5TDI 102 CV. Urtea: 2000
Extrak: kalefakzioa, kanpo dutxa,
fundak, portabizikletak...
Margotu berria eta erresibatua
Amortiguazio berria. Beti
garajejan. Prezioa: 25.000 euro
Tlf: 655739324



GEU


laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



eguneko
menua

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

LA RIOJANA
on egin!!! jatetxea

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa

SEX **PITILIN GORRI**

Sexua euskaraz bizi



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA, OIARTZUN

DIBUtec

Paper Berzeziak
Arte Ederretarako Materialak
Tink jeta original en birziklatuak
Bulego Materialak
Enkuzadertzeziak
Plasti Filakzioak
Kopiak
Kamiseten Estampaketak

azkarprint
Imprenta / Inprimategia
Edozein inprimaketara mota.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ INPRIMATEGIA

Eramun
Argazki - Estudio



Heradio Fournier, 23
(laborategia)
945 13 71 02

Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna
zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

El Clarete
jatetxea



unai eta patxi fdr. de retana

zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874




KIDS
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



MIKEL URDANGARIN

***“ENTZUNA ZARELA SENTITU
BEHARRAK FRAGIL BIHURTZEN ZAITU”***



“Gauza asko kontatzen dizkit Anek baina batzuk gordeta dauzkat”

“Bizitzan gauzarik zailena da norbere buruarekin zintzoa izatea”

Inguruko bizipenak jaso ditu Mikel Urdangarinek aurkeztutako lan berri honetan. Bide berriak arakatzeko momentua heldu zaio; auto-ekoizpena da horren seinale. Hala ere, aspaldiko lagunekin batera egindako bidaia da. ‘Anek idatzi dit zutaz’ du izenburu musikari honen bederatzigarren lanak. Sekretupean kontzerturen bat edo beste eskaini badute ere, diskoaren aurkezpen ofiziala abenduaren 7an izango da, Durangoko Plateruenan.

t. naroa cuesta

a. edorta sanz

‘Anek idatzi dit zutaz’ zure azkeneko lanaren izenburua da. Zertaz idatzi dizu Anek?

Zutaz, bai zutaz. Bai Ane eta bai zu istorio bat kontatzeko lagungarri egiten zaizkidan bi pertsona dira. Anek egiten du zu eta nire arteko zubi lana. Hiru pertsonaren arteko harremana da eta harreman horretan bizitza ematen da: mundu txiki bat, edo zabala. Kantu horrek ematen dio diskoari izenburua. Bi pertsonaren arteko oroitzapenak biltzen dira kantu horretan, izandakoaren oroitzapenak eta gaur egun ez direnak modu goxo batean gogoratutakoak. Gauza asko kontatzen dizkit Anek baina batzuk gordeta dauzkat.

Hurbileko leku, gertaera eta pertsonen mintzo zara disko honetan. Aldiz, bidaia-koaderno baten itxura hartzen du diskoak. Egunerokotasuna gainditzeko bidaiak behar dituzu edo bizitza bera da bidaia?

Bizitza bera bidaia da, zalantzarik gabe. Zernolako bidaia, hori beste kontu bat da. Ni saiatzen naiz nire bidaia aberatsa izan dadin; ahaleginik handiena egiten dut egun batetik bestera berritzeko. Bizitza “kamara lentan” egin nahi dudana bidaia da eta hortaz aparte bidaiatzea asko gustatzen zait. Uste dut abenturero samarra naizela nahiz eta aspaldi honetan ez dudana bidaia askorik egin.

Poliki barneratu behar den diskoa egin duzu, detailerik beterikoa. Horrelakoa ikusten duzu bizitza?

Bizitza zelan ikusten duzun bainoago, zure burua bizitza honetan nola ikusten duzun galdetu beharko genuke. Azkenean, bizitza norberagandik hasten da. Uste dut bizitza pasatzen dugula gure buruari arrazoi bat topatzen. Zure bizitzan eta mundu honetan daukazu lekuari zentzu bat ematen. Nire bizitza hori da, nire burua ahalik eta begirada zintzoenarekin begiratzen saiatzea. Bizitzan gauzarik zailena da norbere buruarekin zintzoa izatea eta zintzo jokatzeko. Ariketa horrek bizitza osoa eskatzen du, amaigabeko ariketa da.

“Sebastian esne-saltzaileak” eskuz egiten du bere eguneroko lana. Eskuz egindako diskoa da hau?

Lan honi bereziki ukitu pertsonala eman nahi nion. Diseinua bidaia koaderno batena da, eta normalean horrelakoetan eskuz idazten da. Xarma berezia eman nahi nion liburuxkari, balio erantsi bat.

Honakoan, diskoa zuk zeuk ekoiztu duzu. Nahi izan duzuna egiteko modu bakarra al da hori?

Diskoa egiteko beste aukera batzuk ere banituen. Baina esku artean duzun disko hura oso zaila da diskoetxe batekin ateratzea. Azkenean autoekoizpenaren bidea erakargarriena iruditu zitzaigun. Arriskua zekarrena eta bertigo pixka bat ematen zuena. Aukerak izanda ere, auto-ekoizpenarena aukerarik zintzoena eta benetan atera duguna ateratzeko modu bakarra zen.

Musikari gisa lortu duzun heldutasunaren seinaleztat har daiteke autoekoizpena?

Ni ez naiz batere heldua, arduragabe xamarrara naiz bizitzako arlo askotan. Autoekoizpena izan arren agentzia daukat ondoan, babes handia ematen didate. Hala ere, lanaren lehenengo eta azken erantzulea ni naiz eta horrek beste inplikazio bat eskatzen du. Gauza guztien jakinaren ganean zaude: lehenengo pausotik azkeneraino. Baina, agentziaren eta musikarien laguntza izan dut, autoekoizpena izan arren ez naiz baka-

rik sentitu. Gaztea naiz bide berriak probatzeko eta nire buruarekin fidela izateko ariketa baten modura har daiteke.

Estudioan grabatutako lana da baina zuzenean. Zergatik aukeratu duzu horrela egitea?

Sonoritate mota bat bilatu nahi nuen. Lehenengo eta behin, uste dut hobeto kantatzen dudala zuzeneko formatuan kabinan bakarrik sartuta baino. Gero, talde honek ere bere onena ematen du zuzenean; denok elkarrekin banan banaka baino. Horrela grabatzeak ematen dio freskotasuna danari, kantuari. Asko dira lehenengo tomak eta denbora gehiago bagenuen ere, bigarren gauerako diskoa eginda zegoen. Inprobisazioari leku bat utzita beste era batera gertatzen ez diren gauzak gerta daitezke.

Idazle, bertsolari eta musikari ugariak parte hartu dute diskoan. Artista edo lagunak, zer dira lehenengo?

Lagunak dira lehenago eta gero, sekulako idazle eta bertsolari onak. Musikariak ere oso lagunak dira eta hori ezinbestekoa da. Taula ganean zure kantua kantatzeko aukera izatea, zure historia kontatzeko..., ondoren talde baten laguntza eta aurrean jendea edukitzea... zorte handia da. Ni zorionekoa naiz. Momentu hori da hemen egotearen arrazoia, honen guztiaren funtsa da. Behin bakarrik bizi gara eta nik horixe nahi dut, ondo inguratuta egon ahal dudanez neurrian

taldea. musikaririk onenez inguratua


sahiela vivo, bateria; bingel mendizabal, zazpi sokako biolina; rafa rueda, gitarra elektrikoa&akustikoa eta mandolina; nika bitchiasvili, biolina; koldo uriarte, pianoa eta melodika; eta alex ruiz de azuaren kolaborazioa perkusiotan.



behintzat. Oso musikari onak dira eta aspaldiko lagunak. Elkarrekin parranda dezente egiten ditugu baina gero oso profesionalak dira. ➔➔

**Euskaraz
independentzia
eraikiz**

araba@aralar.net • Kanpokale berria 4, behea • 945252631



GEU

publizitatea:

idoge@ya.com

688 61 98 37

945 22 21 53

anek idatzi dit zutaz

bidaia koaderno baten itxura du diskoak. bidean aurkitutako lagun, toki eta gertakarien oroitzapenak gorde ohi dira halakoetan. mikel urdangarin giza harremanen inguruan ari da. unai iturriaga, kirmen uribe, jon maia, igor elortza, sustrai kolina, xabier amuriza eta iñaki aurrekoetxearen kolaborazioak jaso ditu zornotzarrak. "berotasuna transmititzen" saiatu da, hala ere, ez du bidegabekeria anitz salatzeke aukera galdu.

Mikel
Urdangarin

Anek idatzi dit zutaz

Disko alaia egin nahi izan duzula dirudi, hala ere, hainbat amesgaiztok harrapatu egin zaituzte. Zergatik?

Zenbait kantutan zenbait egoera salatu nahi nituen. Nire herrikide den Jose Mari Sagardui, "Gatza"ren egoera salatu nahi nuen... 28 urte kartzelan, aspaldi kalean egon behar zuena. Behintzat kalean egon arte kantatu beharko dugu plazaz plaza. Eta besteak berdin, pentsatzen nuen "18/98" a artxibatutako auzi bat izango zela, baina aktualitatea da, sekulako bidegabekeria iruditzen zait eta salatu nahi nuen. Latzak diren bi gai hauek modu goxo batean tratatu nahi izan ditut. Saiatu naiz musika aldeetik ematen indarra, bizipoza, alaitasuna... Ziegatik entzungo duen animo kantua da "Gatza"rentzat eta besteentzat besarkada antzeko bat. Berotasuna transmititzen saiatu naiz.

'Anek idatzi dit zutaz' bideoklipa Gasteiz eta Bilboko Alde Zaharretan grabatu duzu. Zergatik dira bereziak leku bi horiek?

Alde Zaharrek dira niretzat hiriaren alderik politena. Gasteizko Alde Zaharra da benetan politena eta hau zinez diot. Bereziarena hemengoa da, dudarik gabe. 'Anek idatzi dit zutaz' kantuaen istorioa Bilbon gertatzen da. Baina kafetegi bat behar nuen bideoklipa osatzeko eta Gasteizko 'El Segundo' tabernan egin genuen, han baino erosoago inon ez naiz egongo.

Gasteiz aukeratu duzu bizitoki. Zer eskaini dizu urte hauetan zehar Gasteizek?

Azkenengo hamar urteak daramatzat hemen eta txikitan ere 5 urte eman nituen. Aitaren lanagatik etorri ginen hona eta gutxira 16 urte daramatzat. Gasteizen bizi naiz hemen lagunak ditudalako. Eroso nago, lasai bizi naiz,.... batzuetan; norberak konplikatzen du bizitza. Gainera taldeko musikari denak, Rafa izan ezik, Alde Zaharretan bizi gara.

Diskoa kalean dago jada, orain kontzertuen garaia heldu da. Zuzenekoekin hasteko gogo daukazu?

Sekretupean kontzerturen bat eman dugu, lagunartekoak. Nik musika nola ulertzen dudana, horren funtsa zuzenekoetan dago. Zu kantatzen eta norbait beste aldean entzuten. Beti kantatzen duzu pentsatzen beste aldean norbait dagoela. Zuzenekoetan sortzen den harreman horrek azaltzen du dena musikan, horregatik nago hemen, hor sortzen den munduagatik.

Bestetik, Interneteko ataria ere estreinatu berri duzu. Eskuz idatziriko lana Interneten ikusgai. Kontraesanik al dago?

Agentziak proposatutakoa izan da hori. Nik abuztuan erosi nuen ordenagailua, behartuta. Ez dut uste arkaikoa naizenik baina ez naiz ondo konpontzen tresna horiekin... egurra asko gustatzen zait eta oso gaizki

EGUR

- Zuzeneko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Golain Industrialdea
Tl/Fxa: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)



eusko
alkartasuna


www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



Gazte
Abertzaleak

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI



moldatzen naiz mobilarekin ere. Alde batetik, diskoa dago. Ukitu berezi eta personalizatu bat eman nahi izan diot, bai ukimenean eta bai usaimenean, ikustera-koan eta irakurtzerakoan sentitzea zerbait berezia duzula esku artean. Badirudi web orria kontraesana dela baina gaur asko laguntzen du. Gaur ezinbestekoa da mundu digital honetan leku bat izatea, baina gero nik laguntza behar dut, "pake-tea" naiz. ■

www.mikelurdangarin.com


di-da

Noiz idatzi zenuen azkeneko eskutitza? Aurtengo udaberriaren hasieran.

Duzun biziorik handiena? Lagunekin berba egitea ardo, garagardo... bat hartzen.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Umiltasun faltak.

Beldurrik? Bai. Artista orokorrean izaera



ahuleko pertsona dela uste dut. Entzuna zarella sentitu beharrak fragil bihurtzen zaitu.

Noiz amesten duzu gehiago, egunez ala gaeuz? Egunez nahiko amesten dut, imajinatu, irudikatu... Gaeuz guztiz libre naiz.

Gasteizek duen onena eta txarreana? Onena, bertan ditudan lagunak. Txarreana, aldiz: udazken eta neguan faltan botatzen dut kalean gaeuz jendea egotea.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Bai eta ez. Norberarengan dago aukera.

Geu aldizkariaren berririk, noiztik? Etxean jasotzen dut Gasteizera heldu nintzenetik.

Liburu bat? Isabel Allenderen, 'Eva Luna'.

Film bat? Mystic River.

Iragana, gaur eguna ala etorkizuna? Bihar da gaur, etorkizuna hau da eta iragana egiazkoagoa da etorkizuna baino.

Zer eskatzen du herriak? Gero eta gutxiago dakit herriak zer eskatzen duen. Nik osasuna eskatzen dut niretzat eta maite ditudanentzat.

GASTEIZ MODERNOA OTE?

New York, Shanghai, Londres bezalako hiriei aspaldidanik datorkie lotuta modernotasun hitza. Bizi kalitate altuko hiriak omen dira, baina horrek modernoak direla esan nahiko ote du? Londres, munduko kapitalik bisitatuena da, negozio eta kontsumo gune garrantzitsuenetarikoa delarik. Hala ere, hainbat auzotan, kutsaduraren inguruan Europar Batasunak ezarritako muga %50ean gaintzen du. Gainera, 100.000 etxebizitza inguru hutsik dituen hiria da, horrela, etxebizitzaren arazoa pisuzkoa bilakatuz. Hala eta guztiz ere, modernotzat dugu. Zer ote da orduan hiri moderna?

t./a. ainhoa arriaga & naroa cuesta

1.- Nolakoa izan behar du hiri batek moderna izateko?

2.- Gasteiz hiri moderna al da?

3.- Zeintzuk dira horren alde onak eta txarrak?



Joseba Zabaia, euskaltegi irakaslea

- 1.- Ez dut asko sinesten modernotasunean, gauza askoz garrantzitsuagoak daude. Modernoa edo, niri gehien gustatzen zaidan hiri mota Holanda da. Leku batetik bestera mugitze-ko tranbia sarea dago eta bizikleta asko potentziatzen da. Nahiz eta kostata, mota guztietako jendea doa bizikletaz eta oso bidegorri luzeak dituzte. Bestalde, kutsadura aldetik oso hiri garbia da.
- 2.- Esan dudaren arabera, ez. Ez dut uste Gasteiz oso kosmopolita denik. Bilbo modernoagoa da.
- 3.- Alde ona litzateke ez dela hain inpersonala eta alde txarra, aldiz, hiri moduan antolamendua eskasagoa dela.



Izaskun Carbajo, ikaslea

- 1.- Hiritarren eguneroko beharrak asetzen dituen litzateke hiri moderna.
- 2.- Momentuz, nire beharrak asetzen dituen heinean, bai. Gizaki modernotzat zer ulertzen den azaldu beharko zenidake aurretik... kar-kar.
- 3.- Alde txarren inguruan... Gasteizek hiri moderna izateari uzten dionean, beste lekuren batera joan beharko naiz modernitatearen bila.



Pablo Iñigo, ikaslea

- 1.- Ez dakit... ziur daukadana da, moderna izateko malda mekanikoak bezalako gauzarik ez dela behar. Giroak, bizitza kulturalak... egiten du hiri bat modernoagoa.
- 2.- Hiri txikia denez, ezin zaio askorik eskatu horretan. Hala ere, bere bizia dauka eta giro polita gailentzen da.
- 3.- Txikia izanda, tradizioak mantentzen dira, badago herri bizitzako zerbait eta jendeak elkar ezagutzen du. Baina nik, pixka bat modernoagoa izatea nahiago nuke. Modernoa izateak, modaren menpe egotea ekar lezake eta hori arrisksua izan daiteke.

Ez adiorik, Zorro...



LAGUNEK ESKATUTA, OMENALDI TXIKI BAT JOAN BERRI ZAIGUN IÑAKI ISASI ARTE ESZENIKOEN ARLOKO GASTEIZKO TEKNIKARI EZAGUNARI. EZ ADIORIK, ZORRO

Iruñetik Gasteizerako bidean badago Durango-Bergara ipintzen duen autobia ireteera bat. Hartuz gero, industria poligono batera helduko zara. Gamarrakoa dela uste dut. Eta hantxe biltzen ginen ZORRO eta biok. Puntu horretatik aurrera, desberdina bihurtzen zen Bilborako bidaia. (...)

Argi ikusten zuen dena beti, beti pozik egoten zen, beti besteengan pentsatzen, beti arduratuta bai teknikari belaunaldi berriekin, bai kontzientzia faltarekin, elkartasun ezarekin, gehiegizko norberekokeriarekin... Baina beti alai, ke kiribilen artean disdiratsu, arte eszenikoen teknikari, areago, bizirik dirauen teknikari izateaz harro. (...)

Gauza asko bizi izan ditut ATAEn (Arte Eszenikoen Teknikarien Elkarte) bazkide naizenetik eta, bereziki, Batzordearen partaide naizenetik: hoberena, zalantzarik ez, ezagutu ditudan pertsona bikainak, ideal, amets, utopia eta elkarte bera ditugun pertsonak. ZORRO haletako pertsona erraldoi bat da. (...)

Oso luze egingo zait Iruñetik Bilborako bidaia. Eskerrik asko, Azeritxu

santos. batzordetik. atakaria/2007-azaroa

TIRON ETA OJA IBARRETAKO EUSKAL AZTARNAK**DAVID PETERSON, HISTORIALARIA:*****“Eremu honetan Erdi Aroko diaspora arabarraz hitz egin daiteke”***

Arandio omen zen Demanda mendikate mendikatearen izen zaharretariko bat, baina izenaz gain, behinola, bere lar, mendi, eta errekaak euskaraz izendatu zituzten. Zeintzuk, noiz...? Hauek eta antzeko galderak egingo zizkion bere buruari mendi hauen magaleko Fresneda de la Sierra eta Durango bitartean bizi den David Petersonek. Galesen jaioa eta Oxfordko Unibertsitatean Historia lizentziatua dugu. 2003an ‘El valle de San Vicente en la Alta y Plena Edad Media’ idatzi eta gero, azken urteetan ‘Frontera y Lengua en el Alto Ebro, siglos VIII-XI’ tesia burutu eta doktoretza lortu du Burgosko Unibertsitatean.





t./a. kike fdz de pinedo

Zu bizi zaren bailaran eta inguruetan dagoen euskal toponimia ugaria ikustea izan al zen ikerketa egitera bultzatu zintuena?

Bai, beste batzuen artean, ezaugarriarik deigarriena bailara honetan, Ezkaraikoan eta inguruetan (Oka mendiak...) euskal toponimiaren ugaritasuna da. Honek enigma historikoa sortarazten digu, hots, noiz sortu ziren toponimo hauek edo noiztik egin zen euskara hemen eta noiz arte?

Fresnedaren izen bera inguruko beste batzuk bezala Lizarraga moduan agertzen da Erdi Aroan, ezta?

Inguru honetan agertzen da Lizarraga eta hipotesirik sendoena da biak izatea euskal eta erdal aldaerak, esanahi bera baitute. Halere ez dago agirietan esplizituki inon jaso. Antzeko itzulpena izan daiteke ere ondoko Espinosa del Monte herriarena, Erdi Aroan Elhorzaha ere aurkitzen baita.

Zure ikerketan Ebroko hegoaldeko euskararen agerpena aztertu duzu, batez ere Oja eta Tiron arroetan

Euskal toponimiari dagokionez, Oja bailaran bertan bi fenomeno eta eremu ditugula uste dut. Bata Sto. Domingo de la Calzadatik gora, batez ere Ojacastro eta Ezkarai inguruetan. Hemen larre, mendi, iturri edo errekatxoak izendatzeko euskal

toki-izen asko topa ditzakegu, adibidez Turriosa erreka. Beste eremua, errekan behera, hasieran toponimo gutxirekin baina Herremelluritik Haroraino ‘-(h)uri’ (villa euskaraz) duten 20 herri inguru baziren (Zihuri, Otxanduri, Naharruri - Casalarreina)... Nik uste bi fenomeno direla, bi kasuetan Araba aldetiko emigrazioa genuke, baina kronologia ezberdinekin. Bi inguru hauen artean, jakina, joan-etorriak, harremanak sortu eta hizkuntza aldetik elkarri babesa emango gertatuko. Baina mendialdean VIII-IX. mendeetan emango zen eta ‘-uri’ duten herrien zonaldean 1030 urtetik aurrera dela dirudi agirien arabera.

Zenbait historialarientzat X-XI. mendean suertatuko zen euskal migrazio-mugimendu hau. Zuk VIII. mendera aurreratzen duzu

Mitxelenak hipotesi aurre-erromatarra eta Erdi Arokoaren artean erdibide modukoa proposatu zuen VI edo VII. mendeko migrazioa hobetsiz, nahiz eta intuizio edo hipotesi moduan baino ez egin. Nik VIII. mendearen bigarren erdia eta IX. mendea iradokitzen dut.

Zertan oinarritzen zara VIII. mendea proposatzeko ?

Ebro hegoaldean agertzen den euskal toponimiaren banaketan oinarritzen naiz. ‘-uri’ duten toponimiaren fenomenoa

“ezaugarriarik deigarriena bailara honetan, ezkaraikoan eta inguruetan (oka mendiak...) euskal toponimiaren ugaritasuna da”

“nik uste bi fenomeno direla, bi kasuetan araba aldetiko emigrazioa genuke”

“nik migrazioetarako VIII. mendearen bigarren erdia eta IX. mendea iradokitzen dut”

(Haro eta ingurua....) beranduago gertatuko da, lehen esan dudan legez. Baina Oja eta Tiron ibaien goiko arroetako lehen toponimoak, batez ere Burgosko aldean agertzen dira. Hain juxtu, muga politiko baten mendebalde gaztelarrean. Muga honek badirudi garrantzia berezia hartu zuela VIII. mendean. Izan ere, honen hasieran musulmanak -bereberek nagusiki- Gaztelan sartu eta 30-40 urte egon eta gero, 741 urtean arabiar eta berebreen arteko guda zibilaren ondorioz agintea galdu zuten bertan, Leon, Galizia, Asturias eta Kantabrian bezalaxe. Errioxa, aldiz, aliatu muladiak ziren Banu Qasitarren eskutik Al Andalusen agintepean gelditu zen. Bien artean, beraz, muga politiko bat ezartzen da, eta agirietako lehen euskal aztarnak (San Miguel de Pedroso, toponimoak) alde gaztelarrean agertuko dira, eta ez bestean.

Zure ikerketaren arabera leku hauetan, gutxienez erromatarren garaitik, populazio-jarraikortasuna eman arren, VIII. mendetik aurrera gutxinaka migrazio-mugimenduak izango ziren. Hauetan bi garai nagusi eta bi zonalde bereizten dituzu

Bai, lehenengo migrazio nagusia goi Oja eta Tironen izango zen VIII-IX. mendean. Beharbada 759 urtean San Miguel de Pedrosoko (Burgos) monastiaren sorre-



la pastora estela fresnedako plazan

EUSKAL AZTARNAK ERDI AROKO DOKUMENTAZIOAN

Petersonek bere tesi-ikerketan inguruko makina bat agiri aztertu ditu euskal aztarnen bila eta orduko hizkuntza egoera hobeto ulertu ahal izateko. IX eta X. mendekoetan eta gehienbat alde gaztelarrean euskal toponimo hauek bildu ditu: Adefeterra, Amurrihuri, Arbion, Benifederra, Egizuza, Ezkerra, Farnaluzea, Garvissaro, Genestar, Gipuzare (943 urtean Oka mendietan, hau da Gipuzkoari buruzko lehen agerpena), Gutia, Holuori, Lamiturri, Irunia, Larrehederra, Margaluli, Massoa, Nafarruri, Ocharanna, Olegarte, Solago, Vlascori, Urrezi, Zaballar, Zaldo, Zavalla, Zufiuri eta beste hainbat dudazkoak direnak.

Euskal pertsona-izenak ere ez dira falta. Aurrenekoak 759 urtekoak dira, San Miguel de Pedroso-ko (Burgosko Belorado ondoan) monastegiaren sorreraren agirikoak: Amuna, Anderazo, Anderkina... Aurrerago XI-XII. mendeetan honakoak agertzen dira: Andera Ederra de Zaron, Garci Baltza, gastea Guthi, Fortun Artzaina, Enego Gorri... Baita Arabako jatorria salatzen duten hauek ere: Lope de Mendoza, Petro Lozaquo, Enego Lopez de Fossana, Petro Iohannes de Armentia, Martin Navarro de Bitoria eta Martin de Armentia.

ra migrazioen abiapuntua izan daiteke. Hemengo mojen artean badira euskal izen garbiak (Anderezo, Anderkina...) eta beste batzuk etimologikoki ez hain garbiak baina ohikoak inguru euskaldunetan (Urraka, Toda, Jimena). Fundazio hau Munia edo Muniza arabarrarekin ezkondu-ta zegoen Fruela erregepean izan zen. Honek Araban eta Baskoniaren mendebalean hainbat kanpaina militar burutu zituen.

Migrazio hau zenbaitzuentzat "nafarra" izan zen nagusiki, zuk ordea, mendebaleko euskaldunak edo arabarrak aipatzen dituzu euskara mota eta testuinguru sozio-politikoak kontuan izanda

XII. mendean, Santo Domingo de la Calzadan arabar jatorria duten dozena erdi bat pertsonaia aurki ditzakegu, zehazki Gasteiz, Armentia, Mendoza, Loza eta Fozana(Ozana)koak. Eta kopuru hau kontuan hartzekoa da. Hizkuntzari begirata agirietan *baltza* dugu eta ez *beltza*, edo '-uri' eta ez '-iri', hau da, mendebaleko formak. Adibide hauek, agian ez dira erabate-

ko frogak. Baina argudio hau orduko geopolitika kontuan hartuta indartzen da. Izan ere, Nafarroako Erreinuaren zabaltzea Ebro hegoaldean 925 urtetik aurrera gertatu zen. Eta data hau baino lehen badira euskal toponimoak alde gaztelarrean. Hortaz, euskararen agerpena Ebro hegoaldean Nafarroaren zabaltzea baino lehena-gokoa da. Gero Nafarroako Erreinuak agerpen oso handia izango du Errioxan bere monastegietako agirietan ikusten den bezala. Honek kolore nafarra emango dio prozesuari. Migrazio arabarraren kontua, dena dela, Mitxelenak aspaldi aipatu zuen, baita Alarcosek ere.

Merino Urrutiak eta beste zenbaitzuk euskararen agerpena garai erromatarren aurretikoa dela defendatu izan dute. Aurkitu duzu hipotesi honen aldeko zantzurik?

Badira zantzuak baina ahulak dira. Batetik, Fresnedako La Pastora estela aurre-erromatarrean, Barandiaranen arabera, *Aran* zegoen idatzita. Hau horrela balitz, garrantzi handikoa izango litzateke, baina zaila da hizki hauek benetan existitzea.

“XII. mendean, santo domingo de la calzadan arabar jatorria duten dozena erdi bat pertsonaia aurki ditzakegu, zehazki gasteiz, armentia, mendoza, loza eta fozana (ozana)koak”

“XIII. mendean ojacastro inguruko herritarrei euskaraz deklaratzeko eskubidea aitortzen zaie”



David Peterson alticumbear etxolan remendia menditik gertu

Gainera, hitz hasieran 'h' bat behar zuen filologoaren arabera. Bestalde, mendikatearen beste muturrean (Cidacos arroan eta Cameros inguruan -Soria eta Errioxaren arteko muga-) baditugu garai erromatarreko esteletan zenbait antroponimo (Sesenco, Onse, Onso...) euskararekin lotu dituztenak. Gorrotxategik izen hauek mundu euskaldunarekin lotu daitezkeela gero eta seguruago esaten du. Euskal Herritik askotan inguru hau eta Demanda mendikatea eszenatoki bera balitz bezala ikusten dira, baina zaila da mendien artean mugitzea. Artzainek bai beren harremanak izango zituzten, baina oro har, Tiron eta Oja bailarak iparraldera begira biziko ziren eta Cidacoskoa ekialdera. Beraz, bi espazio hauen artean harremanak zailak izango ziren. San Vicente bailaran, bestalde, harrigarria bada ere, erromanizazio sakona izan zen eta garai hartako esteletako pertsona-izenak erromatarrek dira, ez dago euskal itxurako izenik. Ondoko Beloradon, badira izen indigenak, baina indoeuropar edo zeltiar itxurakoak. Azkenik, Erdi Aroan inguru honetan topatzen dugun euskarak eta Euskal Herrian Erdi Aroan egingo zenak antzekoak dirudite. Artikuluaren agerpenak eta toponimoen ulergarritasunak itxura "modernoa" ematen diote. Ez dirudi euskara hori mila urteko fosil bat denik.

Noiz arte uste duzu iraungo zutela euskaldunek?

Hau ikertzea oso lan polita izan daiteke,

baina era berean oso neketsua, XV eta XVI. mendeko agiri guztiak arakatu behariko zirelako erreferentziaren baten bila. Badugu Valgañon herriko XVII. mendeko dokumentazio aberatsa, auzi eta lekuko ez dira falta baina ez omen dago euskarari buruzko aipamenik. Agian aditu batek bertako gaztelania ikertu behar luke. Lan zaila da. Notizia berantiarrena, XIII. mendekoa da, bertan Ojacastro inguruko herritarrei euskaraz deklaratzeko eskubidea aitortzen zaie. Hizkuntz egoera hau ez zen gertatuko Oja bailara osoan, Ojacastro bezalako zenbait herrixkatan baizik. Ezkarai inguru honetan, dena dela, ehunka euskal toki-izen dago eta hainbat ikerketa. Noiz arte euskara? Ez dakit, bat-batean esanda agian XV. mendera arte.

Badira bestelako antzekotasunik, ohituretan, bizimoduetan Araba edo Euskal Herriarekin?

Harremanak izan dira eta badira, logikoa den bezala. Rufino Gomezek, adibidez, euskal artisauek eta errementari ugariaren mugimendua ikertu du. Lexikoan ere antzekotasunak daude. Harreman gehiena Arabako mendebalarekin izan duela uste dut. Batez ere, Kuartango, Añana eta Trebiñurekin, eta gutxiengo mendebaleko Lautadarekin.

Euskal aztarna eta migrazio hauek jakitun dira bertako biztanleak?

Kontzientek dira euskal toponimia dagoela, baina jendeak askotan iraganeko kontuak zaku berean sartu eta nahasten ditu,

erromatar garaikoak zein XIX. mendekoak izan. Bestalde, hainbat erresistentzia ideologiko badira, batzuek ez dute ulertu nahi. Baina oro har, interesa duenak ikusten du. Gero egia da teoria batzuk erakargarriagoak direla beste batzuk baino. Adibidez, euskara aurre-erromatarren hipotesiak interes handia pizten du, baina horregatik ere, ez dugu obsesionatu behar aurkako jarrerarekin. Jarrera irekia izan behar dugu.


San Vicente bailaran bizi izanda, zer nabarmenduko zenuke ezagutzen ez duenak bisita dezan?

Pagadiak, lasaitasuna, Ezkarai orain dela 50 urte modukoa eta garagardo merkeagoarekin, kar, kar, kar... eta San Vicente del Valleko eliza ikusgarria. Aztarna erromatar eta bisigodoak ditu, eta inguru hauek zaharrena da. Alde txarren bat aipatzekotan, hemengo herrien despopulazioa aipatuko nuke ■

akats-oharra

Aurreko alean Errexalari buruzko artikuluan, bukaera aldean hitzaren etimologiaz ari nintzela, Lexar (Lizar) zahaitzetik eta metatesis baten bidez letorkeen hipotesia aipatu nuen eta Irigoienena zela gaineratu. Hau zuzendu beharrean nago, hipotesia Sasetan bizi den Roberto Gonzalez de Viñaspre ikerlariak 1990ko Euskaltzaindiak antolatutako III. onomastika jardunaldietan komunikazio batean plazaratu zuen, kasu honetan elexar (lexar) hitzetik eratorritik metatesis baten bidez eta gero A. Irigoien izan zen bat etorri zena honekin. Bakoitzari berea.

kike fdz. de pinedo



hala bedi

I R R A T I A

ASTELEHENA

ASTEARTEA

ASTEZKENA

OSTEGUNA

OSTIRALA

LARUNBATA

IGANDEA

08:00

AXA MIXA*
TXORRO MORRO

KAKKI*
MOKORDONK

AXA MIXA*
TXORRO MORRO

ZEIN DA*
ZEIN?

AXA MIXA*
TXORRO MORRO

ARGIZIRIA*
AITALDIA

GURE*
ARBASOAK

08:00

09:00

KALEGORRIAN*

09:00

10:00

NOIA
LATINO
AMERICA

A
DESALAM
BRAR

10:00

11:00

SUELTA LA OLLA

EL
CURDERO
DE
BITACORA

11:00

12:00

HBI
MAGAZINA
~~PROX~~

NO TE
SALVES

12:00

13:00

14:00

EL
PINTALABIOS

HALA VIBES

ALTA
FIDELIDAD

BERBEÑIR*

LA
TANQUERIA

HIRU
KORTXEN

FEM
~~laster~~

14:00

15:00

PLANET 77

KATUK*
MODUR

PEQUEÑO
TEATRO

PLAZA
CABASTENOS
ORALE LOS LABREI

EL COLOR DE
LOS ESPEJOS

15:00

16:00

ZEBRA BIDEA

LA
TANQUERIA

MUINOKO
UINIAK
ASTINTZEN

16:00

17:00

18:00

EL
PINTALABIOS

LA
BATIDORA
LIRIKA

18:00

19:00

AITTITA*
RADUGA

GORN*
EUZKADI
OHISTUARI

EN UN
RINCONCITO
DE PROHAMBANA

IGO
BOLUMENA

HIRU
KORTXEA

MANEXAK

PLANET 77

19:00

20:00

MUJIK
GERRIA

A
DESALAM
BRAR

BERTXOKO

ZAHARRAK
BERRI

ORTZADARRA

JAZZTEIZ

MONO
SESSIONS

20:00

21:00

GAZTE
TRUPADAK

NO TE
SALVES

LA
PIKA

FEM
~~laster~~

PA AMB
TOMAKA

GODS OF
NOISE

HALA VIBES

21:00

22:00

IRRATIA.OOM*

OREKA
DESOREKAN

MENDIAN
GORN
MENDIAN
BERA

EL
GUIRIGAY

LA
BATIDORA
LIRIKA

KITZIKA*

CELOSAMENTE
GORDERA

22:00

23:00

EL COLOR DE
LOS ESPEJOS

OREKA
DESOREKAN

MENDIAN
GORN
MENDIAN
BERA

EL
GUIRIGAY

LA
BATIDORA
LIRIKA

SOUND*
SYSTEM

ZAHARRAK
BERRI

23:00

24:00

LA TOS DE MEDIANOCHE

01:00

MONO
SESSIONS

ZUZEN
ZUZENEAN

REGGAE
SESSIONS

DJ
SESSIONS

SOINUEN*
ERREPUBLIKA

KALE*
MOBIDA

EL
CURDERO
DE
BITACORA

01:00

02:00

IGO
BOLUMENA

HBI SESSIONS

EN UN
RINCONCITO
DE PROHAMBANA

NOIA
LATINO
AMERICA

JAZZTEIZ

02:00

03:00

GODS OF
NOISE

PEQUEÑO
TEATRO

ALTA
FIDELIDAD

MANEXAK

NOIA
LATINO
AMERICA

JAZZTEIZ

03:00

04:00

04:00

Magazina

Irratario sozial-kultural-politikoak

Musika

★ Arrosa irrati sarean

Gasteiz - Lautada 107.4

Errioxa - Trebiñu - Mendialdea 107.7

Aiara - Uhinak Irratia 96.5

YOLANDA BARBERO:

“Gaur egun jendea nahiko galduta dabil, ez daki oso ondo zer eskatu”



16 urte zituela hasi zen euskara ikasten Yolanda. Garai hartan, Gasteizko hainbat eskolatan irakasgai bakarra ere ez zegoen euskarara hurbiltzeko aukera ematen zuenik, horregatik, institutuan izan zuen bere lehen hartu-emanak hizkuntzarekin. Ez zitzaion erraza egin euskararekiko lehen kontaktua eta hau izan zen, hain zuzen, euskaltegian euskara ikastera bultzatu zuena. Urtebete eta erdi egon zen etorkizunean bere lanbidea izango zenetik oso gertu. Hain gustuko zuen euskara ikastea, euskal filologiako ikasketak burutu eta bere ogibidetzat euskara irakaslea izatea hautatu zuela. 14 urte daramatza Ika-ko euskara irakasle eta bere lana oso gustuko duela aitortu digu.

t. ainhua arriaga

Zeintzuk dira zure zaletasunak? Mendira joatea izugarri gustatzen zait, bizikletaz ibilbideak egitea ere oso gustuko dut.

Nolakoa ikusten duzu zure burua? Arrunta naiz, eta lotsatia ere banaiz. Jendaurrean hitz egin behar dudanean igartzen dut hori, gainera orain IKAko arduraduna izanda askotan hitz egin behar dut jendaurrean.

Akatsik? Batzuetan nahiko metodikoa naiz. Pentsatzen badut gauzak horrela egin behar direla kostatzen zait beste modu baten egitea. Ez da burugogorra izatea, gauzak kontrolpean izan nahi izatea baizik.

Zer eskatzen diozu bizitzari? Egia esan,

oso gutxi. Orain arte bizi naizen bezalaxe bizitzea. Nik ez dut diru askorik nahi edo behar. Nire lanarekin ere gustura nago. Baina beno, aukerarik balego lan egin barik bizitzeko... kar-kar. Aukera hori ere ez nuke baztertu.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Ez naiz erraz haserretzen den horietakoa, oso gauza larria izan behar da nire onetik ateratzeko. Baina adibidez, oso metodikoa naizenez, mendira joateko plana eginda badago esaterako, bertan behera gelditzeak haserretzen nau. Baina bestela, oso zaila da ni paperak galtzen ikustea.

Oporrak non eta zertarako? Mendia egon behar da tartean. Ez zait inporta hondartzara joatea, baina mendia hurbil egon behar da. Mendia edo ibiltzeko aukera gutxienez.

Eta nora ez zinateke joango? Gaur egun jendeak lurralde exotikoetara joateko ohitura du edo urrutiko tokietara, hegoamerikara... Niri ez zait batere erakargarria iruditzen, gainera ez nintzateke joango. Inguruan baditugu gauza asko oraindik ezagutzen ez ditugunak.

Eguna ala gaua? Eguna. Eguna aprobetxatzea gustatzen zait, gauean ezin da ezer egin. Gaua lo egiteko da.

Zer da Gasteizek duen onena? Eta txarrena? Onena, oso hiri lasaia dela. Txarrena da, izugarri zabaltzen ari dela Gasteiz, gero eta biztanle gehiago gaude baina ez dakit zein neurritan datorren bat zabalkundearekin. Nire ustez, beste modu batean antola liteke, dena hurbilago gera dadin.

GEU elkarte eta aldizkariaren berririk?

Noiztik? Aspaldidanik, hasi zirenetik uste dut dudala euren berri. Euskaltegira iristen

zaigu aldizkaria eta normalean, aldizkariako artikulua klaseetan erabiltzen ditugu eskolak emateko.

Gertutik bizi izan duzu euskararen eboluzioa... Orain egia esan, lehen baino ikasle gehiago daude eta hori poztekoa da, horrek esan nahi duelako hemendik euskaldunak aterako direla. Kontua da, ni euskara ikasten hasi nintzenean, ikastera gindoazenok benetan nahi genuelako izaten zela, euskara ikasi eta hitz egin nahi genuelako. Gaur egun, horrelako ikasle batzuk badaude, baina badaude titulua soilik lortzearen etorri ohi direnak ere. Baina beno, azken motibazio hau ere ez dago txarto, hemendik euskaldunak aterako baldin badira.

Nola dakusazu euskararen etorkizuna? Poliki-poliki ari gara. Gauzak aldatzen ari dira, oso poliki, baina aldatzen. Nik baikorra izan nahi dut alde horretatik. Nire ustez, Gasteizen egunen batean gaur egun baino askoz ere arruntagoa izango da euskara kalean entzutea.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Bai, baina zailtasunekin. Nik, esaterako, bizitza euskaraz egiten dut (gainera, euskara irakaslea izanda...), baina norberak jorratu behar du bere bidea eta bere giroa hori lortzeko: lanean, koadrilan... Ahalegin berezia egin behar da horretarako.

Amets bat? Egunen batean euskaraz edonorekin egin ahal izatea.

Zer eskatzen du herriak? Nire ustez, gaur egun jendea nahiko galdurik dabil kontsumismoan murgilduta eta ez daki oso ondo zer eskatu behar duen ■

Keinu xumea da, bai,
baina guztiok egin dugu lana tinko horretarako



Gure helburua?
Zure eskubidea benetako bihurtzea

aurrera doan herria

un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAIALA

DEPARTAMENTO DE JUSTIZIA
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL



MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33
Gasteiz





BULARRETAKOAK, EHUN URTE

TESTUA: LARRAITZ ARANDO, SEXOLOGOA ETA PSIKOLOGOA

PUNTILADUNAK, UZTAIAK DITUZTENAK, GOMADUNAK, TIRANTE GABEKOAK... GAUR EGUN, HAMAIKA BULARRETAKO MOTA DITUGU AUKERAN. HALA ERE, BETI EZ DA HAIN AUKERA ZABALA IZAN. ORAINGO BULARRETAKOETARA IRITSI AURRETIK, IBILBIDEA LUZEA IZAN DA: EHUN URTEKO BIDEA.

Pierre Poiret paristarrak asmatu zuen 1907an. Dena den, Mary Phelps Jacobek patentatu zuen zazpi urte geroago, eta berak du, gaur egun, asmatzailea izatearen ohorea. Milioika emakumek bularrean daramaten asmakizuna da: bularretakoak. Bularretakoak baditu zeregin antzekoak betetzen zituzten arropa aurrekariak. Haietariko asko deseroso samarrak ziren. Aitzindarietako bat gorputza izugarri estutu eta arnasa hartzea ere oztopatzen zuen kortsea zen.

Dena den, kortse ezaguna iritsi baino lehen ere bazeuden barruko beste arropa mota batzuk, eta haietako zenbaitek antza zuten gaur egungo bularretakoarekin.

Homero Atenaseko idazle ospetsuak konstatzen duenez, Greziako mitologiaren maitasunaren jainkosa Afrodita barruko arropa bat erabiltzen zuen: arropa hark gerrialdea nabarmentzen zion. Jantzi hura desleial izandako senarra bereganatzeko

erabili zuela dio Homerok. Mitologia kontuak alde batera, argi dago Grezia Zaharreko emakumek antzeko jantziak erabiltzen zituztela.

Berdin-berdin, Erroman: sentsualitatea areagotzeko, hainbat jantzi erabili ohi zituzten emakumek. Gorputza estutzeko ohialezko zapi bat, esaterako. Jantzi hark, gainera, balio sinbolikoa eta soziala zuen. Ezkongabeek gerrian jartzen zuten. Eta ezkonduetakoe, gerrikoaz gain, bularretan ere beste zapi bat jartzen zuten. Horra hor, bularretakoaren aitzindari zaharrene-tako bat.

Burnizko kortseak

Baina esan bezala, kortsea da bularretakoaren arbasorik gertukoena. Burnizko kortsea, esaterako. Jantzi hau burnizko gerruntze baten antzekoa zen. Materiala eta itxura ezagututa, ziur garai hartako bularretakoa ez zela oso eroso. Hona hemen burnizko kortsearekin lotutako pasa-

dizo bitxi bat: AEBak Lehen Mundu Gerran sartu zirenean, emakumezkoei kortseak eskatu zizkieten. Zertarako? Kortsetako burniari erabilera militar emateko. Guztira, 28.000 tona metal bildu zituzten AEBetan, eta haiei esker, gerraontziak eraiki zituzten.


Haren ondoren sortutako bularretakoa bi zapi, zinta eta lokarri batez osatuta zegoen; erosoago izateaz gain, papar erakargarriagoak bistartzen zituen. Geroztik, bularretako hau garatu egin da: zoko hamarkadan oihal elastikoak erabiltzen hasi ziren eta 30ekoan tirante gabekoak sortu ziren. Bularretakoaren zabalkuntzan telebistak berebiziko garrantzia izan du. Osagai honen lehen telebista iragarki kanpaina 1967an egin zuten. Ondoren ere bularretakoak aldaketetara egokitzeko ahalegina egin da: 80ko hamarkadan enkaje elastikoak gehitu zituzten, eta 2000. urtean, bularren tamaina "handitu" zuen air bra izenekoak.

Askapenerako moda?

Historian, emakumeak desiratutako objektuaren rola bete behar izan du. Gizona, berriz, desiratzaila izan da, emakumeak asebate behar zuena. Emakumeari, desiragarria izan zedin, kanpoko nahiz barruko itxura izugarri zaindu beharra inposatu zaio. Hortaz, emakume askorentzat, momenturo desiragarri izatea behar bilakatu da. Gure sistema kapitalista behar horretaz baliatu da emakumea ere produktu diru sortzaile garrantzitsu bihurtzeko. Ildo horretatik, hainbat tresna abian jarri ditu super emakumearen ereduaz ezartzeko; itxura jakin bat, izaera ausarta, modako arropa, lanpostu egokia.... Barruko arropen modak ere helburu bera du. Eredu hori saldu nahi digute. Eta horren kontura, gutxi batzuk dirua pilatzen ari dira. Nor bere buruarekin gustura egotea eta

itxura ona duela pentsatzea lagungarri eta osasungarri izan daiteke. Hala ere, beste faktore bat hor sartzen da erdi-erditik: besteek gugandik zer espero ote duten. Horregatik, itxura zaintze hori, oro har, modari jarraiki egiten dugu; praka estu deserosoak, depilatutako gorputzak, bizkarrarentzat eta oinentzat hain mingarriak diren takoi handidun oinetakoak, batere praktikoak ez diren orrazkerak, gustura jatea oztopatzen duten ezpain margoak... Emakumearen askapenerako moda al da hau?

Gure herrialdeko modarekin kritikotasun apala garatu ohi dugu. Beste herrialde batzuetako emakumeen janzkerekin, ordea, askoz kritikagoak izaten gara haien janzkerak emakumearen askatasuna oztopatzen duelakoan. Eta Euskal Herriko emakumeok ba al dugu jantzeko askatasunik?



NEW YORKetik dator notizia: *The New York Times* egunkariak dioenez, pixkatxo bat potolo egoteak hiltzeko aukera murrizten du. Sendagile talde baten azterketaren arabera, kilo gutxi batzuko sobera dituztenek alzheimerrak, Parkinsonak edo biriketako gaitzek jota hiltzeko aukera txikiagoa dute, eta minbi-ziak, diabetek edo bihotzeko gaixotasunek haien artean heriotz gehiago eragiten duten arren, alde *potoloen* aldekoa da. Azterketa Mc Donald'sek ordaindu al du?



VIGOko gazteen artean oso zabal-duta omen dago kalean edateko ohitura. Bertako komunikabideek zenbaki "potolo" samarrak ematen dituzte, egia esan: astebururo, 3.000 gaztek edaten dute kalean, eta denen artean, 2.000 litro alko-holdun edari hartzen dituzte -graduazio altuko likoreak, gehienbat-. Igande goiz normal batean, 4,5 tona botila biltzen omen dituzte Vigoko garbiketa zerbitzuek. Hala ere, azaroaren 4an, inoiz baino botila gehiago jaso zituzten: 10 tona.

gaztezulo.com

Eduki berriak egunero

sexua·gaupasa·egun pasa·musika·sarezulo·hitzorduak·zinema·ikasi bai, baina·mundua·fotografikoak·literatura·teilatupea·protagonistak·agenda·fotomaton·salerosketak·albiste bitxiak·etxeokak·komikiak



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

primatze-lanak ploterrak postalak logo...
artelak k...
alogoak...
azkiak egu...
ekariak fa...
etazioa ir...
gotipoak...
buruak katalogoak iragarkiak irudi

dalvez
maketazioa | inprimatze-lanak | diseinua
diaz de olano margolaria, 22 - gasteiz
tl 652 77 65 09 - fx 945 24 52 69
info@dalvez.com www.dalvez.com

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

Euskadik
behar zaitu

PARRAL
TABERNA
Egueditan, asteleroatik ostalera
JANTOKI
BEGETARIANO
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL- 945 27 68 33

ZURE HARATEGIAK

XABIER AIZPEOLEA
harategia
Florida Azoka 2 eta 3
Tl. 945 13 24 48
Abastos Azoka 2 eta 3
Tl. 945 26 78 97

Jose Luis GARMENDIA
Harategia-urdaitegia
Andaluzia kalea 13
Tl. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behean - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

ARTEPAN
aniztasuna, kalitatea eta zerbitzua
norbanako eta enpresen eskura
Jesus guridi, 2 • tl. 945 27 88 88
boulevard m.g. • tl. 945 06 88 88
vitoria-gasteiz - www.artepan.com

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

ERROTA
HORTZ KLINIKA
Julian de Apraiz kalea, 1 Tl. 945 213 390 - Faxe: 945 213 390
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net

bar · restaurante · albéniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tl: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK LAMINAK

zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tl: 945 13 27 20

Confecciones
Pinedo
Jantziak
San Antonio, 11 • Tl. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 • Tl. 945 15 53 39

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behean
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ


IRYSTA TABERNA
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Udaberria
euskaltegia
• Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat • Musika eskola
- Ume eta gaztetxoentzat • Dantza
Uruguai kalea, 9 - Tl: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tl: 945 22 34 33

GEU
publizitatea:
idoge@ya.com

AGURAINGO KALE KANTOIKO ZERAMIKA MUSEOA

Arabako arte ondarearen atal bat guztion begietan



Klarisa mojen komentuko hormak Obdulio Lopez de Uralde margolariak (Gasteiz, 1896-1957) eginiko hamazazpi artelan erakusgai ditu. Aguraingo Kale Kantoiko Zeramika Museoaren lehen fasea da hau. Egitasmoaren helburua Lautadako herri honetan 1912. urtetik 70 hamarkadara martxan egon zen Arabako Zeramika Ola garrantzitsuan eginiko artelanak berreskuratzea, ezagutaraztea eta guztion begien aurrean erakustea da. Arrue anaien lanen eta garaiko publizitate kartelen erakusleihu bilakatu nahi ditu Aguraingo Udalak herriko zenbait gunen. Arima eta bihotza ordea, Jesus Maria Alegria Urriaga, Pintu goitizenez ezaguna, da.



t. josune velez de mendizabal

a. kale kantoiko z. m.

cerámica alavesa aldizkaria

“Estalperik gabeko museoa behar zuen izan, bertan garai batean egin zena guztiok ikus zezaten; eta horrela izan da, azkenean”, dio Pintuk pozez. Lehen fasea dagoneko bukatutzat eman daiteke. Zeramika da protagonista egun sarrera ordaintzea beharrezkoa ez den museo bilakaturako Aguraingo Klarisen komentuko horma berrizatuan. Hantxe XIX. mendeko margolari gasteiztar Obdulio Lopez de Uraldek eginiko tamaina handiko hamazazpi artelan daude. Paretak badu oraindik bi andramariren lanak eseki beharra, erabat osatua egoteko. Baina halarik ere, Pinturen iradokizunak badu honezkero ametsa bainoago, gauzaturiko errealitatearen itxura.

Txikitatik liluratuta geratu zen Pintu Aguraingo txalet batean ikusitako zeramika batekin. Ordutik bere haurtzarora eta gaztarora zeramika lanekin lotzen ditu, baita hauek dakartzaten garaiko ohiturekin ere, “maiteminduta” dagoela onartu du. “Nire etxean Wagner-en busto bat zegoen, Araiako batzoki zaharreko sukaldea ere mota honetako motibo ezberdinez hornitua zegoen, bai eta Araiako irin fabrika ere... -gogora ekarri du-. Nire aita margolaria zen, karrozak egiten zituen, besteak beste, eta bertako kulturaren pozoia sartu zidan. Nik horrekin guztiarekin egiten nuen amets”.

Aguraingo Zeramika Ola

Dimas Ugarte aguraindarra izan zen 1912. urtean axuleiua egiteko asmoarekin Aguraingo Zeramika Ola ireki zuena. Guda zibilak ekarriko zituen galera eta kalte ugariaren ondoren, Fructuoso Fernandez de Larrinoa bere Elosuko lapikogintza utzi behararen aurrean, Agurainera joango da familia eta ikasle duen Federico Garmendiarekin ere (egun 84 urteko izeneko buztinlaria dena). Ontziak egin zituzten hauek batik bat, urte batzuen buruan Narbaxara alde egin zuten arte. Azkenik, 70 hamarkadan fabrika itxi egin zen.

Pintuk ezinbestekoa ikusi zuen hirurogei urte horietan eginiko artelan horiek guztiak Aguraingo, eta ondorioz, Euskal Herriko zeramika eta kulturaren ondarea osatzea. Ezin zen hori edonola ahanzi, hortaz. Gauzak horrela, 2000 urtean Aguraingo Udalaren ekimenez Aguraingo ola zaharren gaineko ikerketa abiatu zen. Bertan gauzatu ekoizpena, artelanen kokalekua eta aurkikuntza, eta han lan eginiko margolarien izenak ere bilatzen hasi ziren.

1952 urtean Aguraingo Zeramika Fabrika Valentziako familia batek erosi zuen. Hori dela bide, Agurainen lan egiten zuten margolari zenbaitek Manisera bidaiatzen zuten, bertako teknikak ikastera. Hori dela eta, Agurainen ekoizten zen zeramikak ezaugarri bereziak zituen, berezko egiten zituztenak axuleiua eta ontziteria.





Obdulio Lopez de Uralde

Aguraingo Zeramika Fabrikan lanean zebilen margolarien artean Obdulio Lopez de Uralde zegoen. Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan ikasitakoak ondoren Madriler a ere bidaiatu zuen. Muralak, buruhandiak eta zeramikak margotzen zituen, eta gasteiztarra izan arren Aguraingo tabernetan denbora pasatzen zuen. Herritarrek ezagutzen zuten. Obdulio Euskal Herriko ohituren isla bilakatu zituen bere artelanak, batez ere Arabako gertakizunak hizpide zituelarik.

Pintuk lan horiek berreskuratzeko premia sentitu zuen eta Valentziara ere bidaiatu zuen ikerketari jarraituz eta bere debozioaren morroi. "Duela sei urte, hain justu ere, Iñaki Berazarekin (Aguraingo alkatea) hizketan museo honen beharraz eta garrantziaz ohartarazi nion -aitortu du-. Eta ondorioz hainbat bidaia egin ditut Valentziara Agurainen egiten zen zeramikaren inguruan gehiago jakin nahian. Eskertuta nago oso Aguraingo Udalak proiektu honi argia eman izanagatik".

Gaur egun zenbait zeramika errekuperatu dira, batzuk Lopez de Uralde familiaren dohaintzak izanik, eta, beste batzuk berriz, Aguraingo biztanleek etxean zizutzenak eskainiz. Bertan ikus daitezkeen horietako



batzuk honakoak dira: Pepe Botella eta Sancho Panzak partekatutako margoa, baserriena, Galarretako jaiak gai diren beste bat, Zeledon pertsonaia arabarra, Gargantua eta Pantagruel, Arratiako musikariak, kalejira bat, euskal dantzak ilustratzen duen beste bat, edota Euskal Herriko paisaia islatzen duen margo kostunbrista. "Guridik euskal musikan izan zuen pisu bera du Lopez de Uraldek margoetan", nabarmendu du.

Hurrenak Arrue anaiak

Aguraingo Udalak, Pinturen egitasmoari jarraituz, lanean jarraitzen du etorkizun hurbil batean (egitarauaren arabera 2008an egin beharreko esku-hartzea da) herriko



a. edorta sanz

Jesus maria alegria urtiaga, pintu, museoaren eragilea

Olbea izenez ezagutzen den San Joan plazatik doan oinezkoen pasabidea beste zenbait zeramikaz hornitzeko. Izan ere, Arabako Zeramika Elkartearen kolaboratzaile sutsuak izan ziren Ramiro eta Jose Arrue margolari bilbotarrak Lopez de Uralderekin batera. Horregatik, Arrue anaien zeramikak izango dira datorren urtetik aurrera Olbea apainduko dutenak, baita agian bestelako margolari euskaldunenak ere, hala nola, Aurelio Arteta eta Diaz de Olanorenak.

Kale Kantoiko Zeramika Museoaren egitasmoa itxiztat emateko, hirugarren arlo bat ere lantzeko asmoa du Aguraingo Udalak. Honek "Publizitatearen kalea" izena hartuko du. Izenak berak dioen bezala, egun oraindik eraberritu gabe dagoen herriko kantoiko bateko murreran, XIX. mendeko publizitate kartelen buztinezko erreplikak paratuko lirakeke. Bi fase hauek oraindik bidean dauden arren, dagoeneko Agurainekin dio Arabako eta Euskal Herriko ondare kulturala berreskuratzeari ■

ELIZAR TERAPIA ZENTROA

OSASUNA

Si estás en el ahora, estás en el infinito.

t. edurne begiristain

a. edorta sanz

Gizakiaren energiarekin lan egiten dute. Gizakiak berez dituen baliabide naturalak indartu, azaleratu eta bideratzen saiatzen dira. Barrutik, kanpora. Horixe da Gasteizen ireki berri den Elizar terapia zentroaren funtsa. Musikoterapia, kiromasajea, Polaritate terapia, Chi Kung, homeopatia eta akupuntura eskaintzen ditu Hedegile kaleko 42 zenbakiko zentro berriak.

Gaixo egon ala ez, osasuna zaintzeko gunea eskaini nahi du Elizar zentroak. Hori lortzeko helburuarekin ireki zuten apirillean Roberto Gilek eta Isabel Martinezek Gasteizko zentro berria. Homeopatian, akupuntura eta Polaritate terapian titulua duen urologoa da Gil, eta berak izan zuen zentroa irekitzeko ideia. San Jose klinikan terapia alternatibo eta osagarriak lantzeko aukera handirik ez zuela ikusita erabaki zuen alor hori jorratzeko kontsulta irekitzea. Polaritate terapian aditua den Isabel Martinezekin elkartu ostean, egitasmoari batu egin zitzaion ondoren kiromasajearen aditua den beste lagun bat, eta mediku osteopata bat. Elizar zentroko lan-taldea osatzen dute laurek.

Labur azaldu beharko bagenu, esango genuke Elizar zentroan energiarekin lan egiten dutela, erabiltzen dituzten botika guztiak energetikoak baitira. "Gorputzetik harago doan osasunaren eta gaixotasunaren

ikuspuntutik lan egiten dugu", argitu digu Gilek. Gizakiaren funtzionamendua ahalbidetzen duen *zerbait* hori lantzen dute, gaixo bazaude, osasuna lortzeko, eta gaixo ez bazaude, osasun hori indartzeko. Izan ere, Gilek argi dauka ohiko medikuntzaren baliabideak erabilia ere, gorputza bera dela osasunaren alde mekanismoak abian jarri behar dituenak. "Gorputzaren baliabide naturalak indartzean datza gure eginkizuna".

Oinarri hori hartuta, arazo askori irtenbidea bilatzen saiatzen dira Elizarren. Hala, osasuntsu egon arren, arazo psikologikoak, funtzionalak, psikosomatikoak, muskularrak, edota fisikoak landu nahi dituenak badu tokia Elizar zentroan. Arazo horiek guztiek isla dute gizakiaren barrualdean, blokeo, jarrera, edota posturekin, eta horiei arreta jartzen diete Elizar zentroko profesionalek, soluzioak bilatzeko.

Hartarako, terapia ezberdinak eskaintzen dituzte: musikoterapia, kiromasajea, Polaritate terapia (eta polaritate yoga), Chi Kung, homeopatia eta akupuntura. Bakarkako kontsultak ez ezik, taldeetako terapiak ere egiten dituzte bertan. Halaxe egiten dute, esaterako, Chi Kung-ekin, musikoterapiarekin eta polaritate yogarekin.

Adin guztietako jendeari zuzentzen dizkiote euren zerbitzuak, haur txikietatik hasi, edadetuetera. Arazo fisikoak dituzten pertsona askok jotzen dute eurengana (lunbal-

gia, giharretako mina, osasun arazoak dituztenak...), baina baita arazo funtzionalak dituztenek ere (estresa, loezina, antsietate krisiak...). Askok pentsatu dezaketenaren aurka, gaixotasun larriak dituzten pertsonak ere euren terapia osatzera joaten dira Elizar zentrorara.

Gilek argi utzi nahi du eurek ez dutela ohiko medikuntzaren alternatiba eskaini nahi, medikuntza "osagarria" baizik. Esaterako, ebakuntza bat egin behar duen pertsona batek terapia jakin bat jarraituz gero, errazago lortu dezake ebakuntza horren orbaina sendatzea, odol gutxiago galtzea edota ebakuntzara lasaiago joatea. "Kasu batzuetan gaixotasuna soilik maila funtzionalean dago, eta blokeoa bakar-bakarrik energetikoa da, kasu horretan, landuz gero, gaixotasuna ekiditeko baliagarria izan daiteke terapia", azaldu du.

Medikuntza horri mesfidati begiratzen dion jende asko egoteak ez ditu bereziki arduratzen Elizar zentroko arduradunak. "Beldur handiagoa ematen dit pentsatzen duenak guk den-dena sendatu dezakegula". Izan ere, Martinezek azpimarratu du eurek eskaintzen dituzten terapiekin nork bere burua ongi ezagutzea eta ardura hartzea dela garrantzitsua. "Guk ez dugu dena sendatzeko ideia hori saltzen, guk estimulatu, indartu, edo animatu dezakegu norberaren sistemak zerbait egin dezan, eta laguntza ematen dugu barruan duzun energia hori guztia bideratzen".

ZAINTEKO GUNEA



“Gorputzaren baliabide naturalak indartzean datza gure eginkizuna”



SAKONDUZ

Kiromasajea:

Giharretako mina gutxitzeko teknika multzoa da, dela tentsioengatik, dela energia blokeoagatik, hala tonu ezagatik sortuak. Igurtziak eginez, sakatuz, edo luzatzeak erabiltzen dira.

Polaritate terapia:

Materia eta formaren atzean dagoen benetako sustantzia energia da. Horixe da Polaritate terapiaren funtsa. Eta horretan oinarrituta, hainbat alor jorratzen dira: polaritate yoga; elikadura eta dieta garbitzailea; emozio prozesuen kontzientzia hartzea; eta masajeak.

Akupuntura:

Txinako medikuntzan funtzeskoa da orratzen bidez akupuntura-puntuak ziztatzeko terapia. Akupuntura-puntuak lotzen dituzten bideek gorputzak behar duen energia fluxua sortzen dute.

Homeopatia:

Pertsona osasuntsuarengan sintomak sortzen dituen substantziak, sintoma berauek aurkezten dituen gaixoa senda dezake. Horixe da homeopatiaren printzipio nagusia. Homeopatiaren helburua ez da gaixotasuna sendatzea, gaixoaren sendaketa estimulatzea baizik.

Musikoterapia:

Musikan eta terapian oinarrituta, baliagarria da depresioa, antsietatea, autismoa... eta antzeko gaitzak dituztenei laguntzeko.

Chi Kung:

Txinako gimnasia energetikoa da. Geure gorputza eta izpiritua berritzen, tonifikatzen eta bizkortzen laguntzen duu.

www.centro-elizar.com

LANDA BIZITZA

Landa bizitza, hirietan bizi den jende askok eta askok dauka idealizatuta. Azken aldi honetan, oporretan landa eremuetara jotzea jarri da modan, hiriko estresaz, kutsaduraz... ihesi. Hala ere, estereotipo guztiekin gertatzen den bezala, landa bizitzaren inguruan sortutakoa ere, ez da egia biribila. Bizitza mota hau, naturarekin harremanetan egoteko eta oporretarako aukera polita baino askoz ere gehiago da.

Pribilegiatuak

Hirugarren munduko herrialdeetan, jende pobre eta lur aberatsa egoten den horietan, nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi diren herritarrak, industriatik bizi direnak baino askoz ere gehiago dira. Baina hala ere, gizartean askoz ere pisu gutxiago izaten dutenak dira hauek, horregatik, landa bizitzarekin hainbeste lotura duen jendeak, Vicentek eta Jonek kasu, sentsibilitate handia du gai honekiko: "Eurekin konparatuta, pribilegiatuak gara gu", dio Jonek hunkituta. Bizi kalitate txarrean dutenak izaten dira, hezkuntza eskubidea urratuta dutenak, ura eta argia bezalako lehen mailako beharrianak beteak ez dituztenak, hedabideetan mamuak besterik ez direnak eta hiriko gizarteetan mespretxu izugarriaz tratatzen dituztenak, beste gauza askoren artean.



JON MARTINEZ DE LAFUENTE ARRAUSI

Jon Domaikian bizi da, Zuiako herri txiki batean. Abeltzaintzan egiten du lan eksklusiboki, 32 haragi-behi ditu eta zuzenean edota harakinei saltzen die haragia. Hori da, hain zuzen, bere lanetik gutxi gustatzen zaiona, salmenta momentua. "Oso zaila egiten zait animalia saltzea, beti galdetzen diot nire buruari egokiena egiten ari naizen". Hala ere, bere lana oso gustuko du, "lan hau gustuko ez baduzu oso zaila litzateke aurrera eramatea". Abeltzaintzak oso denbora libre gutxi uzten dion arren, lagun artean aritzeko tarteak bilatu behar diren ustekoa da.

t. ainhoa arriaga

a. edorta sanz & artxibo

Landa bizitza euren baitan daramaten Jon Martínez de Lafuente eta Vicente Azpizurekin bildu gara, mundu honetan murgildu eta bere nondik norakoak ezagutzeko. Horra hor euren laguntzaz garatutako erreportaia.

Bizitza era bat

Landa lana, ez da ogibide soil bat, bizitza era bat da. Lan bengan gogorra egiteaz gain, egunaren ordu gehienak pasatzen dituzte lanean. Hirikoarekin alderatuta oso bizitza desberdina da eurena, besteak beste, erritmo guztiz ezberdin batean funtzionatzen delako baserri inguruetan. Ez dira erlojuaren menpe bizi, ez dute hiriko lan ordutegi esturik. "Landa lana maratoni baten antzekoa da, lana dosifikatu beharra dago", azaltzen du Jon Martínez de Lafuente abeltzainak. Azken finean, erlojua, gizakiaren kontrolerik at dauden faktoreek ordezkatzen dute, eta hauei begira egiten dute lan, urtaroak, klima, argia, animaliak... Eurek jakin behar dute nola eragingo dion faktore bakoitzak beren lanari, izan ere, gaur egun, Euskal Herriko landa langile gehienak beren nagusi propioak dira, hots, ez diote inori konturik eskatu behar. "Landa bizitzak subiranotasuna ematen du, zuk erabakitzen duzu dena eta noski, erratu zaitezke, bakoitzaren txarrerako izango delarik". Eta hau, hainbeste beldur sortzen duen bakardadearekin dator eskutik lotuta. Orduak pasatzen dituzte inorekin egon gabe eta batez ere herri txikiak direnean, zaila izaten da tartetxo bat aurkitzea jendearekin harremanak lantzeko. "Arazo bat kontatzean ez da konpontzen, baina txikiagoa egiten da", dio Jonek. Horregatik, landa bizitzan dauden arazoei (prezioen igoera, otsoaren arazoa, gaixotasunak...), hauek partekatzeke aukeren eskasia gehitzen badiegu, bi bider gogorragoak egiten dira arazoak.

Animaliekiko lotura

Abereak, ez dira fabrika bateko torlojuak, sufritu, sentitu, gaixotu egiten dira. Abeltzaina ez badago umorez edota ospakizun batek bultzatuta janari gehiago jasotzen badu, animalia konturatu egiten da eta horren arabera jokutzen du. "Animaliek gauza asko erakusten dizkigute", dio Vicente nostalgikoak. Jaiotzen ikusten dituzte, egunero garbitu eta jaten ematen diete. Hortik datoz animalien eta abeltzainen artean sortzen diren benetako harreman afektiboak. Eta ez harreman baikorrak soilik, otsoa da gaur egun arazo gehien dakarkien animalia, eta benetako kezka antzematen zaie honen inguruan. "Ez nago otsoaren kontra, kontua da otsoa eta kalitatezko abeltzaintza estentsiboa ez direla bateragarriak", dio. "Jendea ez da batere kontzientea arazoz, erritmo honetan ardi latxa ikusiko dugun leku bakarra telebista izango da", erantsi du.



VICENTE AZPIZUA OLABARRIETA

Vicente, Gasteizen bizi da, Larrinbekoa da eta Amurrion egiten du lan. Amodio kontuak bultzatuta alde egin zuen Larrinbetik orain dela lau urte. Nostalgiaz begiratzen dio lehenaldiari, bertan zeraman landa bizitzari, bitziza osoko oroitzapen guztiak bertan dituelako. Gaur egun, kaniolari diharduen arren, ez du zalantzarik abereak izango lituzkeela arazo ekonomikorik ez balekarkioke. Malenkonia horrez gain, Vicente egungo landa bizitzaren egoerak asko tristetzen du, izan ere, egoera hau ez baita haurra zenean berak ikusitakoa. "Pena handia ematen dit. Nire gurasoek landa lanean ateratako errentarekin hezi ninduteh, gaur egun, abeltzainek diru laguntzak beharrezkoak dituzte bizirauteko"

Ikuspegi komunitariotik indibidualismora

Orain dela 40 bat urte, inguruko langileek elkarrekin lan egiten zuten, elkarri laguntzen zioten lan gogorak egiteko. "Euria zetorrela, auzokoez beren landak arriskuan zituzten nekazariei laguntzen zieten", azaltzen digu Vicente Azpizua. Baina errenten igoerak eta teknologia berriek ekarritako erraztasunek guztiz aldatu zuten lan egiteko era komunitarioa. Jonek eta Vicentek azaldu bezala, makinek laguntzaileen beharra murriztu zioten langileari eta horren ondorioz, pentsatzeko era askoz ere indibidualistago batera jo zen. Kapitalismoaren indarraren adibide garbia. Urte batzuk pasata, nahiz eta errentak 80-90 hamarkadetan baino altuagoak izan, landa langileek elkartzeko joerak dute, gaur egun jaitsi, eta nabarmen jaitsi dena eskulana izan baita. Oso gazte gutxi daude landa lanean aritzeko prest. Horregatik, "landa lana gazteentzako erakargarria ez izatea denon erantzukizuna" dela gogorarazten digu Jonek. Nahiz eta lan gogorra izan, gizarte alor askotan onura dakarren lanbidea dela ezagutaraztea oso garrantzitsua da gazteen motibazio hori suspertzeko. "Elikagaiak emateaz gain, ingurumena zaintzeaz eta bertako animalia arrazak mantentzeaz arduratzen gara", jarraitzen du Jonek. Landa lana behar bezala baloratzea izango litzateke lehen urratsa, hain beharrezkoa den ogibide hau desagertzetik nahi ez badugu.

Garapen jasangarria?

Asko aldatu da landa bitziza oso urte gutxitan. Aldaketa bat-batean izateak, bertako jendeari inposatutako moldaketa ekarri du. Alde batetik, familia egiturak guztiz aldatu dira, iraganean ohikoena zen baserri berean aitona-amonak, gurasoak eta umeak bizitzea, "baina hori ia desagertu egin da aktiborik ez dagoelako, nekazaritza-ustiategiak unipersonalak bilakatu direlarik", dio Jonek. Gauzak horrela, familia egitura aldatzeaz gain, lan egiteko era ere aldatu da, esplotazioak familiabakarrak izan baitira betidanik. Bestalde, herriak berpizteko aurrera eramaten diren politikek ere, aldaketa bortitzak jasatera eraman dituzte landako biztanleak. Urbanizazio berriak sartzen ari dira herri oso txikietan, eta bertan, bitziza guztiz desberdina daraman jende hiritarra bizi da. Horrek, herrietan talde desberdinak sortzea ekarri du, landa langileak landa langileekin biltzen dira eta hiriko jendea hirikoekin. Horrela azaltzen digu Jonek, "aldaketa bat-batekoa izateak kalte handiak ekarri ditu, herrien garapena gutxika egin beharrezkoa da. Hala ere, ez dator batere gaizki gurea ez den beste errealitate desberdin bat ezagutzeko" ■

MENDIGUREN-NORDKAPP EUSKAL HERRIA-LAPONIA



Zergatik joan Laponiara?, galde lezake baten batek. Gauza da guztia hasperen baino ez zenean urrutiko lur batekin amets egiten nuela, urruna bezain basatia zen eremu batekin. Izan ere, bizi garen Europa burges honetan ia ez da geratzen gunen naturalik -benetako baten bat geratzen baldin eta bada- eta parkeak bi motatakoak izaten dira, hiri barrukoak eta kanpokoak, azken hauek aurrekoak baino zabalagoak izan arren azken finean parkeak bati parke. Jendez eta azpiegitura erraldoiz gainezka dagoen herrialde ñimiño batean bizi gara, eta nik oso bestelakoa zen txoko batekin amets egiten nuen, hots, gure adineko kontinente honetan baso-berdea eta itsaso-urdira ezin zabalagoak izango ziren toki hori ikusten nuen begiak ixtean...

t./a. aitor fdz de ortega



Jendez eta azpiegitura erraldoiz gainezka dagoen herrialde ñimiño batean bizi gara, eta nik oso bestelakoa zen txoko batekin amets egiten nuen, hots, gure adineko kontinente honetan baso-berdea eta itsaso-urdina ezin zabalagoak izango ziren toki hori ikusten nuen begiak ixtean... geroago jakin izan nuenean horrelakorik bazela, Laponian zehazki, hara joateko erabaki irmoa hartu nuen. Egon bazegoen bigarren arrazoa, lehena bezain erakargarria, Laponia izan baita batez ere bi estatuk inguratzen duten nazioa, kultura eta ezau-garri propioekin, eta bertan bizi direnak arro daude haien herrialdean bizitzeaz... ezagun egiten zaigu?

Udaren hasieran sanferminak jada puripurian, nire herritik, Mendigurenetik atera nintzen korrika baino txirringaz, eta ez oso azkar, soinean neraman zamagatik (kanpainadenda, arropa, janaria eta bestelakoak). Eraman behar nuen guztia ikusita, atera baino lehen burutik pasatu zitzaizdan txirringari nekazari baten erremolkea lotzea, baina garai horretan herriko erdi baseritar guztiak uzta lanetan oso sarturik zebiltzanez, aukera hori baztertu behar izan nuen eta poliki-poliki Lizarra, Iruña, Auritz, Donibane-Garazi atzean utzi nituen azkenik Euskal Herriari "gero arte"esateko. Behin Frantzia, Landak, pinu lautada ia amaigabea, dunek moteltzen eta itsasoak geldiarazten duena zeharkatu behar; geroago Erdi Aroko herriak, ubideak, "ia-baserriak" eta tranpa hiriak, zeinetatik, behin sartuta, haietatik txirringaz ateratzea kasik ezinezkoa zen autopistek lotuta baitzeuden.

Belgika izan zen udako egun bateko erdi ametsa, "egun on" bakarra eta "gabon" bat. Han izan nuen mundu garatuarekiko lehen kontaktua, garatua behintzat garraio alternatiboari dagokionez: bizikleta. Herrialde hartako herritar askok bizikletaren aldeko apustu garbia egin dute, eta bai Belgikan baita Holandan ere, bidegorriek goxoki bat egiten dute ubideekin eta horrela, izan badira auto "petromobilaren" alternatiba erreala. Herbeheretan ezer deigarririk badago bizikletazale batentzat, bada herrialde horietan dagoen bizikleten aniztasuna... kasik Amazonian dagoen bioaniztasuna daukate



han bizi(kleta)-dibertsitatea... eskualde horretan txirringaz marabuntaren erdian ni beste bat nintzen, ezer berezirik ez.

Alemaniko iparraldeak harritu ninduen, inguruan neukanak Arabako Lautadarekin antza handia zeukan eta, "Alavania" zirudien. Han gari soroak eta herrixkak, gehiago edo gutxiago "txaileztuta" zeuden herriak ez ziren gutxi. Zer edo zer azpimarratzekotan, hango nekazarien adiskidetasuna izango litzateke, haien traktore erraldoietatik agurtzen baininduten -agian hobe ez jakitea burutik zer pasatzen zitzaizkionean ni txirringaz ikustean...

Danimarkan hegoaldeko iparraldera bidaiatu nuen. Nahiz eta dakidan esperientzia subjektibo eta oso puntualean oinarritzen iritzia den, hango paisaiek eta jendearen harrerak ez ninduten gehiegi bete... pena da baina.

Suediatik mendebaldetik ekialdera igaro nintzen Goteborgetik Stockholmlora. Tarte horretan gari zelai zabalak, pastel kolorez margotutako etxalde eta ale-btegiak, eta amaigabeak bezain artifizialak ziren pinudiak ikusi nituen. Azken horiei begiratuta, mozkortuta bezala amaitzeko arriskua zegoen txoko guztiek zeukaten antzekotasuna zorabiatzerainokoa baitzen. Baso horiek maite zituen eta bertan bizi zen erditrol batek datu zirrargarria bezain kezkarria eman zidan. Izan ere, Suedia hegoaldeko basoen %0,2 besterik ez dela hango betiko basoa, gainontzekoa, ia-ia guztia, nolabait esatearren "letxuga insignis erraldoiek" beteriko txokoak dira. Kasu Gertatu ohi den bezala basa-bizitza pipilean aurki daiteke benetako naturaz osaturiko irla txiki horietan; kasu honetan bi katamotz bikote bizi dira ehuneko bat baino askoz txikiagoa



den natura puska horretan, inguruetak baso artifizialetan ezin baitute aurrera egin.

Eskandinavia eta Finlandiako hiriburua lotzen zuen ferrya bi munduren arteko jauzia eta nire abenturaren amaieraren hasiera izan zen. Gidaliburuen arabera, Helsinki dugu ekialde eta mendebaldearen arteko nahasketa baten emaitza orekatua; nahiz eta nire prestakuntza artistiko eta arkitektonikoa hutsaren hurrengo izan, horrela zirudien. Helsinki da noizbait berriro bisitatuko dudana hiri, batez ere hiriari eta hango biztanleei darian exotismo eta sinpatiatatik hurrenez hurren.

Hiri ondoko kanpin batean luze egon barik "lepoan hartu ta segi aurrera" abesteari ekin nion eta iparralderantz jo nuen. Handik gutxira atseginez sufritu nuen Finlandiako lakuekiko lehen kontaktua, mota neurri guztietako lakuak, baina gehienak ezin ederra-goak. Bidearen tarte honetan ez nuen jasan behar izan herrialdera lehorreratu bezain laster iragarri zidaten "eltxo ekaitza"... Eskerrak! Batzuen arabera helikopteroak bezain handiak baitziren. Agian nire zortek gai horretan zerikusirik zeukan aurten negua aurreratzearekin, eta bost graduz zero azpitik egin zituen goiz batean eltxo gehienak mundu edo hibernazio hobe batera pasatzearekin. Goiz eltxo hiltzaile harekin ondo oroitzen naiz, nire udako lozorro barruan lanbada moduko bat dantza egin behar izan bainuen zertxobait epeltzeko.

Ezta txakurrek ere beraiantzat nahi izango ez zuten eguraldia lagun, heldu nintzen

Finlandiako iparraldera, eta han sekula eta betiko ni hauts bilakatu arte maite izango dudana lurraldea ezagutu nuen: Laponia! Euskal Herriarekin komuneko ezaugarriak eduki arren beste zenbaitetan hain bestelakoa den lurraldea. Eredu gisan, autoaren burugabekeriari lotzen gaituzten eta gure herrialdea hormigoiz eta zapaltzen, urratzen eta itotzen duten mundunezko marra zuzen erraldoiak egon beharrean, Laponian bazeuden zilarrezkoak zirudien, amaigabeko natura sugetxoak baliran zeharkatzen zuten haritxoak, gehienetan mundunezkoak baina hainbatetan lurrezkoak. Gainera bazirudien zuhaitzek bazterren ertzetatik salto egin behar zutelako bide erdira, bolada batez utzitako tokia berreskuratzeko. Laponian oroitu nintzen aita hainbatetan kontatutako bera gaztea zeneko pasartekin; antza txikitzen Bilbo eta Gasteiz lotzen zuen errepidearen erdian (gaur egungo autopistan) futbolearen aritzen ziren; garai hartan arratsaldean modu atsegina batean emateko aukera eta egun zure burua beste egiteko beste aukera bat. Hala ere, Laponian bide erdian arriskurik gabe jolasteko beste aukera batzuk bururatu zitzaizkidan: musa, patata korroa edo bestela aspertzeko asmoz edo "klaxona jotzen ez duena ez da pasako".

Behin Artikoan, kadukatuta dagoen edozein ume zintzok bezala, azken egunak eman nituen Aita Noelen bila opari bat eskatzeko; Pirineoi besarkatuta dagoen eta jada oso heldua den herri honentzat izango

zena, hots, gure etorkizuna guk geuk erabakitzeke ahalmena, horrela etorkizun hori berdez eta gorritz margotu ahal izateko. Ez nuen baina Noel izeneko aitarik aurkitu - baten bat egongo da, nik uste- beraz Europaren goi adartxora -inguruan dagoen uraren hoztasunagatik handiagoa ez den buztantxo horretara- heldu nintzenez nire eskaera mendiari, Nordkapp izeneko lurmuturrari, egin nion. Azkenik heldu nintzen nire Meka pertsonalera eta ezin izan nuen ekidin oroitzea haien etxeetatik urrun egotera behartuta dauden herrikide guztiekin.

Guztira izan dira 6000 km, zortzi aste bizikletaren ganean, estatu batzuk, nazio gehiago eta kultura askoz gehiago, nire sokatira taldekoek, Badaiotzekoek egindako hainbat barre eta apustu eta bidaiakide bakarra: bizikleta.

Besterik gabe esperientzia aberasgarria izan da, pribilegio hutsa da bi hilabeteko oporraldia izatea (gora IKA!) hala moduko abenturatxo batean inbertitzeko, zeinetan atera aurretik noizbait gorriak ikusiko dituzula dakizun.

Bidaia honen ondorioz argiago eta finkatuago geratu zait aspaldiko iritzia, alegia, Euskal Herriko jendea ez dela kontinente honetako edo besteetako jendea baino hobe edo okerragoa baina bai oso ezberdina ■

Besterik gabe,
GORA EUSKAL HERRIA
ETA LAPONIA!!!

arababixotzian

m. mundina



MUNDINA 2007 bestebatarte

ZORIONAK ETA* FIGHT THE POWER

*konjuntzio

zutabea



Nondik gatoz?

t. erlantz urtasun antzano. historialaria

Pasadizu bat kondatuko dizuet. Arabako mendebaldean, Burgosko mugatik hurbil, bazen jauntxo familia botertsua. Dirudienez, eta eskualde hartan, haien nagusitasunaren arrazoina Gaztelan zegoen, hots, Erdi Aroan Gaztelaren alde eta Nafarroaren aurka lan egin zutelakotz.

Dirudun-dirudunak, eta beti elizaren laguntzaz, inguruko jendea, ez juridikoki baina bai praktikan, haien esklabuak ziren. Euskara, erran beharrik ez dago, mesprextatu eta desagerrarazi zuten. Horren ondorioz, duela ehun bat urte, bai irakurle maitiak, ongi irakurri duzue, duela mende bat arabar eskualde tipi hura Erdi Aroan bezala zegoen antolatuturik.

Pentsa ezazue zer gertatu zen han 1936an, edo nola egiten zuen ihes bertako jendeak Gasteiz eta Bilbo alderantz. Hondarrean, baina, ustekabeen, jabe gaizto horien leinua zimeldu, seme-alaba guti izan, arazoren bat eduki eta haien historia amaitu zen.

Nik ezagutu nuen azkenetakoa, aitaixi bat. Sinets ieza-dazue, benetan, heziketa handiko gizona zen, zintzoa, atsegina, ez haren aspaldiko senide beldurgarri horiek bezalakoa. Kulturaz ederki jantzia, euskara maite zuen, "gurea" zela zioen, eta penaz ikusten zuen Madrilen hartzen ziren erabaki politikoak. Honela erran zidan: "Es que con esos, ya sabes, del euskara no va a quedar ni rasto, como hicieron mis antecesores con la toponimia de sus dominios".

Garrantzitsua gero nondik gatozen jakitea, baita borrokari eustea ere. Izan ere, norik erran behar zuen arabar handiki horien azken ekarpena gure aldekoa izanen zela? ■

"Arabako herri izenak aldatu dira historian zehar?" (XIX)

Noizbait aditu duzue erdaraz "Restia" izena duen herri basamortua, hots, garai batean hutsik geratu zen herria? Bada, eta orduan hango biztanleek euskara bertzerik ez bazekiten ere, duela mila urteko agiritan "Restia" deitu zioten.

Baina eta hemen, badugu XIII. mendeko agiri interesgarri bat, non "Herrezia" aipatzen baita, eta horrek bertzelako gogoeta egiteko parada eskaintzen digu, jakina.

XVIII. mendean bertze pare bat testigantza dugulakotz: "Urrestia" eta "Arrestia". Eta, are gehiago, ezin ahantzi duela berrehun urteko "Errestia", ezta Iruñeko Paskual Madotz egileak, karlisten garaian, haren entziklopedian aipatzen duen "Errasti" ere.

Ai, Asterix, erromatar hauek burutik jota daude. Horren erraza den euskara ikasi beharrean mila urte baino gehiago daramate euskal izenak desitxuratzen. Eta jai dute.

proposamenak



- **Gai nagusia: Umorea**

Gai honi lotuta egitarauan honako ekintza hauek izango dira:

- Sarrera hitzaldia: Andoni Agirregomezkortak egingo du.
- Estreinaldia: 'Oroimenaren lupa'. Fredi, Xabier eta Itxaso Paia neba-arrebek eta Unai Elorriagak egindako bertso-musikatuen ikuskizun berria.
- Zazpiak Batman Kolektiboaren eskutik 'Laster Master: inkomunikazio ikastaro azkarra' ikuskizunaren azken emanaldia
- Estreinaldia: 'Sommer jaunaren istorioak' antzezlan
- Zakilixut Azokan erakusketa
- Film emanaldia: Kutsidazu bidea, Ixabel
- Mahaingurua: 'Hemen jaungoikoari ere barre'. Imanol Lazkano eta Pello Zabala. Moderatzailea: Juan Kruz Lakasta

- **Egitarautik nabarmentzeko beste ekitaldi batzuk:**

- DJ erakustaldi-partehartzailea Oleaktiff-en eskutik.
- Eva Forest, Jesus Atxa eta Salvador Solaegi gogoratzeko ekitaldia.
- Euskal Greatest Hits Gaua
- Olentzeroren bisita

- **Euskal Idazleen Elkartearekin eta Ertoba euskal georgiarren elkartearekin elkarlanean, Georgiako literatura gonbidatua izango da.**

- **Gerediaga Elkarteak 42. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan 'Durango Argizaiola' saria Maiatz elkarteari emango dio 25. urteurrenean.**

- **Azokako kartela Igotz Ziarreta meñakarrak egin du.**

- **Gerediaga Elkarteak urteko argitalpenen katalogoa osatu du. Azokarako aldizkari berezia argitaratu du.**

- **Parte-hartze datuak: 317 (horietako 14 teknologia berrien gunean) stand egongo dira eta 161 parte-hartzaile. Nobedadeak 554.**

Info+ & egitaraua:

www.gerediaga.com / www.durangokoazoka.com

FITXA

Izena: Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka
 Aldia: 42. edizioa
 Non: Durangoko Landako Erakustazoka
 Noiz: 2007ko abenduaren 5etik 9ra
 Ordutegia: 10:30-20:00
 Bultzatzailea: Gerediaga Elkartea
 Zenbatero: Urtero
 Izaera: Irekia (sarrera doan)
 Sailak: Editorialak, banatzaileak, diskoetxeak, erakundeak eta kultur eragileak.
 Betebeharreko ezaugarria: Euskarazko argitalpenak eta euskal gaiak edozein hizkuntzatan)
 Antolatzailea : Gerediaga Elkartea eta Durangoko Azoka

Durango Argizaiola

- 1992 Jon Bilbao
- 1993 Bernardo Estornes
- 1994 Eusko Ikaskuntza / Euskaltzaindia
- 1995 Euskal zinemagintza: Koldo Larrañaga, Benito Ansola, Pio Caro Baroja, Fernando Larrukert, Nestor Basterretxea eta Euskadiko Filmoteka
- 1996 Antonio Zavala Etxebarria
- 1997 Bittor Kapanaga
- 1998 Juan Jose Agirre
- 1999 Jose Maria Jimene Jurio
- 2000 Klaus F. A. Niebel
- 2001 Juan San Martin
- 2002 Labayru ikastegia
- 2003 Gerardo Bujanda
- 2004 Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi"
- 2005 Gotzon Garate
- 2006 Jakin Aldizkaria
- 2007 Maiatz Elkartea

DATUAK

Partaideak

Parte-hartzaileak 161

Argitaletxeak	45
Elkartek	42
Diskoetxeak	19
Erakundeak	15
Banatzaileak	9
Aldizkariak	13
Bestelakoak	18
Eskari berriak	19

Erakusmahaiak

Stand kopurua 317

Arruntak	303
Teknologia berriak	14

Nobedadeak

Nobedadeak 554

Liburuak	395
Diskoak	74
Partiturak	11
Aldizkariak	18
Bideo-DVD	23
Argitalpen elektronikoa	9
Bestelakoak	24



CD-AK & BESTE

LEKEITIOAK. MIKEL LABOA. ELKAR
 ANEK IDATZI DIT ZUTAZ. MIKEL URDANGARIN. AUTOEKOIZPENA&KAP
 MUNDU MARGOTU BERRI BAT. KOKEIN. GAZTELUPEKO HOTSAK
 ONenean. PETTI. GH
 MAMBA BEAT. Dantzarako proposamen mestizoa. GH
 FASTFATUM. IGOR CALZADA & HARKAITZ CANO. GH
 ARGIAK. KEN ZAZPI. OIKUKA
 KATAMALO. BBK. GOR
 IKASTOLEN IKASMATERIALAK. WWW.IKASTOLA.NET
 NESTOR BASTERRETXE. ERROEN MODERNITATEA. DVD. ARTEOLA. PAMIELA



LIBURUAK

JALGI HADI PLAZARA. ITXARO BORDA. SUSA
 KAXA HUTS BAT. BEÑAT SARASOLA. SUSA
 AXULAR-EN HIZTEGIA. AITA LUIS VILLASANTE. PAMIELA
 MIREN NUNCA MAIS! PAKO ARISTI. ELKAR
 ETZI. KARLOS LINAZASORO. ELKAR
 KATAMALO. GOTZON BARANDIARAN. SUSA
 MORTO VIVACE. JON ARRETXE. ELKAR
 ETXEAREN NEÇARRA. FELIPE JUARISTI. ELKAR
 HITZEN LAPURRA. BERTSOTXONGILOA. + dvd. LANKU





Arabar sentitzeak ematen digun pozak garamatza gorenera.

NORTASUN KONTUA DA

Diario

Noticias de Álava

Eres lo que lees

www.noticiasdealava.com



ARAMAIO



ARRAZUA-UBARRUNDIA



LEGUTIANO




URKABUSTAIZ



ZIGOITIA



ZUIA



Cuadrilla de Zuia
Zuiako Koadrila



www.cuadrillazuia.com

ARABA
GOGO-BILOTE ETIK

ALAVA
DE 1000 AMORES

Diputación
Foral de Alava



Arabako
Foru Aldundia

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Keinu xumea da, bai,
baina guztiok egin dugu lana tinko horretarako



Gure helburua?
Zure eskubidea benetako bihurtzea

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ESPARRUKO HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKALOGOA

Euskara da Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) berezko hizkuntza, eta hizkuntza ofiziala da, gaztelaniarekin batera. Beraz, EAEko epaitegi eta auzitegien erabili ahal izango da herritarrei inolako oztopo edo eragozpenik sortarazi gabe.

Justizia Administrazioaren zerbitzu publikoarekiko harremanetan, erabiltzaileek hizkuntza ofizial biak erabiltzeko eskubidea daukate, eta ezin izango zaie inolako itzulpenik eskatu.

Herritarrek eskubidea izango dute auzitegien aurreko adierazpen guztiak erabilitako hizkuntza ofizialean jaso daitezzen, hizkuntza batean ala bestean izanik ere.

EAEko epaitegi eta auzitegien barruan, herritarrek eskubidea izango dute prozesua euskara hutsean izan dadin eskatzeko, prozeduran zehar eurei dagozkien arloetan.

Herritarren eskubidea izango da epaitegi eta auzitegietatik heltzen den dokumentazio orokor guztia hizkuntza ofizial bietan egon dadin.

Prozedura edo izapidetze judizialen bat bideratzen denean, lagun jakin bati dagokion dokumentazioa, berak eskatzen duen hizkuntza ofizialean bidaliko da.

Herritarrek eskubidea daukate dokumentazio guztia EAEko edozein hizkuntza ofizialean aurkezteko epaitegi eta auzitegietan. Euskaraz aurkeztutako dokumentazioa balio osokoa izango da. Agiri batek EAEn hizkuntza-esparrutik kanpo izan behar baditu ondorioak, botere publikoek bideratuko dute itzulpena, arrazoi gabeko atzerapenik gabe.

Zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten erakundeek eta EAEn diharduten administrazioen menpeko lagunek ezin izango dute epaitegi eta auzitegien aurrean oztopatu euskararen erabilera, ez dutela ezagutzen argudiatuta.

Euskaraz ez dakiten Justizia Administrazioako kidegoak osatzen dituzten lagun guztiei eskura jarriko zaizkie gaztelaniara itzultzeko behar diren tresnak.

Botere publikoek euskara ahoz zein idatziz erabil dadin sustatuko dute EAEko Justizia Administrazioan.

Eusko Jaurlaritzak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren bitartez, Hizkuntza Normalizaziorako Plangintza Orokorra sustatu eta ezarriko du EAEko Justizia Administrazioan; eta baita barruti judizial bakoitzari egokitutako erabilera-plangintza zehatzak ere.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO ERAKUNDEARTEKO BATZORDEAK 2007KO MAIATZAREN 7AN ONARTUA.

aurrera doan **herria**

un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Justizia Administrazioarekiko
Harremanetarako Zuzendaritza



DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Relaciones con la
Administración de Justicia